ttipi ttapa

321

2002ko martxoaren 7a • XXII. urtea



## Pio Caro Baroja anaiaren liburuaz 07

Julio Caro Baroja zenaren «Los vascos y la historia a través de Garibay» liburua aurkeztu zuen Beran Pio bere anaiak. Eskuizkribu sinatua gordea du Itzean.



## Lesakan Futbol-7 txapelketa 28

Mastegi futbol zelaian 8 eta 11 urte arteko futbolariak biltzen dira hamabortzero, Beti Gazte, Baztan Ikastola eta San Francisco Jabier Ikastetxea ordezkatuz.

# 03 Berrizaun-Bera errepide berria prest izanen da 2006.rako



Argazki Montajea: ttipi-ttapa




ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak
Larunbat goiz eta arratsaldez irekia
ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 •Tfnoa: 948 637780
NA-31780 LESAKA







N-121-A errepidean, Berrizaungo hiru karriletatik Berako saihesbidera doan errepide zatiaren proiektu berriaz solasteko bildu ziren otsailaren 19an Bortzirietako alkateak Nafarroako Gobernuko ordezkariekin. Zehazki, Alvaro Miranda, Bide Zerbitzuko Zuzendari Nagusia izan zuten solaskide alkateek. Berrizaun eta Bera arteko errepide berria bortz zatitan banatu da, Jesus Usechi Santamaria ingeniariak zuzendu eta Jose Antonio Ipurragirre Garcia ingeniariak idatzitako proiektuan. Zati bakoitzarentzat alternatiba ezberdinak aztertuak ziren, eta azkenean, ustez egokienak direnak aukeratu dira zati bakoitzean.




BEHIN BEHINEKO PROIEKTUA AURKEZTU ZAIE ALKATEEI

# Berrizaunetik Berarako errepide berria egitea 23 milioi euro terdi gostako da

**Aitor AROTZENA**

Otsailaren 19an Nafarroako Gobernuko ordezkariek Bortzirietako alkateei proposatutako proiektuaren arabera, 23.458.513 euroko (3.903 milioi pezeta) aurrekontua izanen du Berrizaun eta Berako saihesbidearen arteko errepide berriaren proiektua gauzatzeak, BEZa kontuan hartu gabe. Guzira, zortzi zubi eta bi tunel eginen dira. Hauetan bi karril izanen dira, baina gainerakoan hiru karril izanen ditu 2003. urtean eraikitzen hasi eta 2006rako akautzea espero duten errepide berriak. Gaur egun, 9.600 metro inguru ditu errepide zati horrek, eta berritzen denean 7.983 metrotan geldituko da. Josu Goia Berako alkateak jakinarazi digunez, *«orain ateri da alternatiben estudioa. Errepideen Zuzendari Nagusia, Alvaro Miranda, eta bortz alkateak bildu ginen. Lehendik begiratua genituen proiektu ezberdinak eta han azaldu ziguten orokorki dena: Ingurumen inpaktua, zati bakoitzaren alderdi onak eta txarrak, eta zergatik teknikoek proposatu duten alternatiba hau. Gure zalantzak erakutsi eta azaltzeko aukera genuen».*

### Alegazioak aurkezten ahal dira Herriko Etxeetan

Hau da Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako Departamentuak Bortzirietako alkateei aurkeztutako behin behineko proiek-

tua. Dena den, Josu Goia Berako alkateak agertu bezala, gauza batzuekin ez daude sobera konforme eta herritarrek ere beraien iritzia emateko aukera dute, alegazioak aurkeztuz. Horretarako Herriko Etxeetara jo behar dute. *«Alkateokin behin behineko proiektua adostu ondotik, Nafarroako Gobernuak udaletxeetan paratu du aitzinproiektu hori jendeak ikusteko, eta komeni da partikularrek ere begiratzea eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egitea. Bortzinetako Herriko Etxeetan dago proiektua eta edozein joaten ahal da ikustera. Behin adostasun batera ailegatuta, behin betiko proiektua enkargatuko du Nafarroako Gobernuak aurten berean. Lanak 2003. urtean hasiko liratekeen. Tunelak eta zubi aunitz egin behar direla kontuan hartuz, hiru bat urte joanen dira lanak akautzeko, beraz, 2006. urterako akautzea espero dugu».*

### Belate-Endarlatsa tartean moldatuko den azken zatia

Berrizaun-Bera errepide berria Nafarroako Gobernuak 1998 eta 2005. urteen artean moldatzeko prestatu zuen Errepideen Plan Zuzentzailearen barnean dago. N-121 errepidean, Belatetik Endarlatsa bitarteko azken zatia da, Sunbilla inguruan Larrakaitz eta Arrigaztelu eta Zozaia-Doneztebe tarteak moldatu ondotik. 2006. urterako, beraz, Iruñetik Berara bitartean errepide txukuna gelditukо da, baina Endarlatsatik Behobiara?







Argazkiak eta Montaiea: Aitor AROTZENA

**Berrizaunen kamioiaren gibelaldean ageri den Sebastianea bota eginen lukete.**
**Lesakan, Alanberri ingurutik Batzarlepo aldera zubia eginen da eta gero tunela Matxain aldera. (montajea ez da zehatza).**

| 1. ZATIA (HIRU KARRILAK-BERRIZAUN) | |
|---|---|
| **LUZERA** | 1.775 metro |
| **AURREKONTUA** | 6.281.756,37 € (1.045.196.315 pta) |
| **EZAUGARRIAK** | |

Bi zubi eginen dira, bat hiru karrilak akautu bezain laster, 200 metrokoa, errekaren bertze aldera pasatzeko eta berriz eskuinera pasatzeko 90 metroko bertze bat. Hemendik segidan, 400 metroko tunela eginen da, Kamineroen etxeko kurba saihestuko duena eta Berrizaunera agertuko dena.

| 2. ZATIA (BERRIZAUNGO LOTURA) | |
|---|---|
| **LUZERA** | 780 metro |
| **AURREKONTUA** | 1.755.566,78 € (292.101.735 pta) |
| **EZAUGARRIAK** | |

Errepide berria, gaur egungoaren gainetik joanen da, altura batean. Dena den, errepide berrian sartzeko eta ateratzeko probextuko da bide zaharra. Eskuin aldean dagoen Sebastianea etxea bota egin beharko da.

| 3. ZATIA (BERRIZAUN-ETXALARLATS | |
|---|---|
| **LUZERA** | 1.640 m |
| **AURREKONTUA** | 4.231.636,54 € (704.085.0 |
| **EZAUGARRIAK** | |

Berrizaunetik 130 metroko zubia eginen da errekaren ezker a
satzeko, Zeruneta baserriaren ondotik. Trenbidearen traza
tsua izanen du. Onbordi inguruan 100 m.ko zubia eginen d
ko Benta ingurua bitarte. Berrizaunen bezala, lehengo err
rriaren beheitiko aldetik joanen da eta loturak egiteko pro





## Josu GOIA *Berako alkatea*

# "Lesakako loturari eman dioten soluzioa ez zaigu batere gustatzen"

**Orokorrean, zein iritzi duzue aurkeztu den alternatiba estudio honetaz?**
Tramo bakoitzean alternatiba ezberdinak ziren eta, sakonki begiratu gabe, iruditzen zait logikoenak erabaki dituztela zati bakoitzean. Bai kostu aldetik, bai nola murrizten den gehiena kilometroak... Adibidez Berrizaunen aukerarik garestiena hartu dute, lehengo bidea beheko pasoa baita eta errepidea altura batean doa eta hori gauza ona da. Etxalarko bidegurutzean ere beheko pasabidea izanen da gaur egungo errepidea eta ez dute elkar gurutzatzen. Gero, ez zaigu inori gustatzen Lesakara sartzeko edo Lesakatik ateratzeko erabaki dutena. Adibidez, Iruñetik Lesakara ateratzeko Etxalarko irteeran atera behar da eta errepide zaharretik joan Lesakaraino. Edo Aceraliatik Bera aldera ateratzen diren kamioiak ere karretera zaharra hartu behar dute eta Nabasturengo zentral inguruan sartu berrira, eta hor badira kurba arriskutsuak... Ez dugu ongi ikusten hor eman duten soluzioa. Zaila da Bereau parean gorapiloa egitea, Berrizaun edo Etxalarlatsan bezala gainetik pasatuz, baina nik behinipein hori hobekiago estudiatu behar dela uste dut. Bertzalde, baserriak errepide berriarekin nola komunikatzen duten ere ikusi behar da, tunelak eta zubiak ez ezik, gainerako gehiena hiru karrilekoa izanen baita.

**Planoan ageri denez, trenabidea ere dexente ukitzen da...**
Toki batzuetan ukituko du, baina proiektuan agertzen da argi eta garbi trenabidea errespetatu behar dutela, edo ukitzen badute, bertze alternatiba bat egin behar dutela, bide gorri gisara. Hori paratzen dute eta horretan kontent gaude, gainera Bertizko Partzuergoak trenabidea egiazko bidegorri bihurtzeko proiektua baitu.

**Eta Endarlatsa-Behobia zatiaz ere aritu zineten bileran?**
Guk Iruñetik etortzen diren aldiro probexten dugu hori ere aipatzeko, baina lehengoan ez zen Palacios kontseilaria etorri. Halere erran genion eta mugitzen ari gara. Batasunak alkateen konparezentzia eskatu du Nafarroako Parlamentuan. EA-PNVk ere mozio bat sartu du Gipuzkoako Junta Generaletan, zerbait egiten bada elkarrekin egitea eskatuz: ez Nafarroan zati bat egin Endarlatsaraino eta gero, 2007an, Endarlatsatik Behobiarakoa egiten hasi. Konpetentzia afera da eta jabetzarekin arazo handia dute. Nafarroako Gobernuak lur batzuk baditu Gipuzkoa aldean, baina hori Gipuzkoa da, argi eta garbi. Artikutzarekin alderantzizkoa gertatzen da: Donostiako Udalak erosia du Artikutza, baina hori Nafarroa da, ez Donostia. Edo Endarako urtegiarekin gauza beretsua gertatzen da. Dena den, guri bost axola errepidea norena den, guri errepidea moldatzea interesatzen zaigu. Nafarroako zatiak moldatzen ari dira, horrek trafikoaren handitzea ekarriko du eta gero Endarlatsan botila-lepoa harrapatuko dute. Hori solucionatu beharra dago. Kasurik ez badigute egiten, igual herritarrak eta enpresak kanlera atera beharko ditugu mobilizazioetara. Enpresari gehienak gipuzkoarrak dira eta egunero honat lanera etortzen dira mila gipuzkoar baino gehiago. Beraz, ez da bakarrik Nafarroaren arazoa, baizik denena.




| 4. ZATIA (ETXALARLATSA-MATXAIN) | |
|---|---|
| LUZERA | 1.840 metro |
| AURREKONTUA | 8.158.752,67 € (1.357.502.221 pta) |
| EZAUGARRIAK | |

Etxalarko Bentatik segidan Lesaka aldera sartuko da, 200 m.ko zubiarekin. Trenabidearen gaineko aldetik joanen da, Alanberri eta Alanzar ingurura arte. Hor berriz eskuin aldera pasatzen da, 130 m.ko zubiarekin, Batzarlepo ingurura. 300 m.ko tunela eginen da, Lesakako zubiaren aitzinetik dagoen kurba saihesteko. Matxain erreka inguruan aterako litzateke, gaur egungo errepidearen gaineko aldetik.

| 5. ZATIA (MATXAIN-BERA) | |
|---|---|
| LUZERA | 1.948 metro |
| AURREKONTUA | 3.030.801,49 € (504.282.937 pta) |
| EZAUGARRIAK | |

Matxainetik segidan, 130 m.ko zubiarekin Tellegiko gaineko aldera pasatuko litzateke, trenabideko tunelaren gainetik. 150 metrora 150 m.ko bertze zubia eginen litzateke, berriz ere eskuin aldera pasatzeko, Matxainetik Bera aldera dagoen kurba arriskutsua saihestuz. Bigarren zubitik Berako saihesbidera gaur egungo errepidea zabaldu eginen litzateke, hirugarren karrila emanez.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Ilarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Pelo Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 21 € |
| Espainia | 21 € |
| Ipar Euskal Herria | 33 € |
| Europa | 33 € |
| Amerika | 103 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso | 18 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Miguel Lizardi

Joan den otsailaren 10ean, igandearekin, goizeko 9,15etan hil zen nire aita, 83 urte beteak zituela. Zuekin eskutitzak elkartrukatzen zituela eta eskela hau pertsonalki idaztea gustatu izanen litzaiokela kontuan hartuz, zuei idaztera animatu naiz.

Igantziko herriaren semea, bere sorterriaz guziz harro zegoen, eta Igantzik eman zizkion zoragarritasun guziak helarazi zikigun bere bizitza osoan. Bere eskola prestakuntza adin guzietako ikasleei eskola ematen zien maisu zorrotz baten eskutik jaso zuen. Honek ortografia ezin zuzenagoa eta kasik unibertsitatekoa izan zitekeen matematika eman zizkion. Eskulanetarako trebezia, berriz, Changuetek (esku bakoitzean zituen sei hatzekin) eta bizilagun aunitzek erakutsi zioten baratzea lantzen, sagardoa eta urdaiazpikoa egiten, zura lantzen, arotz lanak egiten eta bertze edozer gauza onena balitz egiten. «Non ikasi zenuen hau egiten?» galdetzen genioenean, «Igantziko Unibertsitatean» erantzuten zuen.

Berak egiten zuen gauza bakoitzean, beti izaten zuen present «Igantzikoa izatearen» harrotasun hori. Behin eta berriz paisaien edertasuna aipatzen zigun; bere uren goxotasuna, hil arte hortzagin bikainak eman ziona: edo herriko bizilagunen pasadizo barregarriak. Nire amona Nemesiaren jatetxea, nire aitona Feliperen harategia eta abentura sinestezinak, masailean zuen zauriseinalearekin, bere izakerak baino gehiago beldurtzen zuena. Nire izeba Ascencionen edertasuna, nire amak ere goraipatzen zuena kontakizunean laguntzen zionean. Nire osaba Raimundoren esku handiak eta nire osaba Antonioren deabrukeriak. Bere haurtzaroa, bere nerabezaroa, Beatriz Betbesé madrildarrarekin egin zituen espostutako lehendabiziko urteak (honek ere %50ean Igantziko odola zuen zainetan, amaren aldeko nire amona, Dorotea, Igantzikoa baitzen, Txopenean bizitutakoa. Jose Javier eta Roberto Maria nire anaien sortzea, eta ama nitaz haurdun zegoela zazpi hilabete bete zirenean, 1949an, Argentinara abiatzea.

Urte aunitz pasatu ziren, 1964an itzuli ziren arte eta geroztikan kontaezinak izan ziren nire gurasoek egin ahal izan zituzten bidaiak. Jainkoari eskerrak, 52 urte igaro ziren irail hartatik. Nire aitak, Argentina aunitz maitatu zuen, baina Igantziri zion maitasuna kutsatu zigun.

Honela, bata bertzearen gibeletik seme-alaba eta lagun guziak Antonio eta Maria Paz osaba-izeba bisitatzen joan ziren, eta hauek borondate osoz onartzen dituzte guziak, harrera onenearekin eta zintsotasun guziz, lekuari edertasun handiagoa ematen diotenak.

Bisitariek Igantziri buruz atera dit uzten ondorioak aipatzerakoan zera erraten digute: «Zure aita motz gelditu zen».

Leku horretako alaba naizenez, oroitzapen hau helarazten dizuet, nirea bezalako aita batetaz gozatu ahal izateak ematen didan zoriontasuna goraipatuz, leku eder horretako bizilagunei nabari zaizuen (edo zaigun erran beharko nuke) bizipozez, zintzotasunez, indarrez eta baikortasunez betea. Ezagutu zutenendako, bere oroitzapena gorde. Ezagutu ez zutenendako, ez dakite zer galdu zuten.

Har zazue adiskide baten agurra, urruntasun honetatik.

**Maria Elena**
**LIZARDI BETBESÉ.**




Alberto
RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA


PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

## DATUAK...

• Otsailaren 22an Julio Caro Baroja idazlearen *"Los vascos y la historia a través de Garibay"* liburua aurkeztu zen Itzean, Beran.

• Anaia, Pio Caro Baroja, izan zen aurkezpena egiteaz arduratu zena. Entsegua Donostian ofizialki ezagutzera eman bazen ere, familiak Itzea sortetxea hautatu zuen "Julio Caroren izpiritua eta familiarena etxeko zoko guzietan dagoelako". Liburuaren edizio berria Guadalupe Rubio de Urquiak egin du.


RAKEL GOÑI

**Pio Caro BAROJA** *Antropologoa*

# «Aurkeztu dugun liburuaren eskuizkribu sinatua Itzean, sortetxean, gordea dugu»

Rakel GOÑI

**Itzean, Beran, egin da Julio Caro Baroja anaiaren liburuaren aurkezpena, zergatik?**

Arras garrantzitsua izan da guretzat Itzean, sortetxean aurkezpena egitea. Gogo handiarekin etorri gara, lan interesgarri hau berriz aukeztera. Nik Julio anaiaren presentzia hemen, gure artean izatea nahi nuen. Omenaldi ttiki hau berari eskaintzen diogu. Irakurleek jakinen dute liburu hau irakurrita, zein izan den Euskal Herriaren erlazioa Espainiako gainontzeko autonomiekin. Bertzalde, aurkezten den liburuaren eskuizkribu sinatua Itzean bertan gordetzen dugu. Gure guraso, izeba-osaba eta anaia beraren irudia, margoetan, etxeko paretetan ikus daitezke.

**Urteurren bat ospatzen da aurkezpenean, zein da?**

Garibaik laburpena publikatu eta laurehun urte geroago Juliok liburu hau plazaratu zuen. Egun 30 urte bete dira anaiaren ikerketa publikatu zenetik. 1971n izan zen, Julio Caro anaiak ondotik liburuaren zuzenketa eta argibideak eman zituen zenbait idatzietan. Bigarren edizio hau egiteko erabili dira idatzi horiek.

> «Liburua arras polita da, familiak editatu du, eta nik uste dut anaia harro egonen zela edizioarekin»

**Zeintzuk dira Julio Caro Barojaren liburuan aurkituko ditugun berrikuntzak?**

Lehenik eta behin, liburua komunitate zientifikoaren esku berriro egotea nahi genuen. Baina bereziki belaunaldi berriengana hurbildu nahi genuen, honela, irakurle gehiagok lanarekin goza dezaten. Lehenengo argitalpenaren zuzenketa batzuk egin dira, batzuk Julio Carok berak egindakoak eta bertzeak Guadalupe Rubio Urkiak. Dokumentazio handiko liburua izanik, honek irakurketa zaildu egiten zuen. Ondorioz nota horiek testuan tartekatu dira, ulergarritasuna erraztuz. Liburua uletzeko erraza da, edozeinek segi dezake istorioa.

**Garibai izan zen liburu honen ardatza, zergatik?**

Juliok bere lan aunitzetan aipatzen zuen Garibaiko Esteban. Ez bakarrik liburu honetan, edo euskal gaietan, anaiaren lan osoan agertzen da Garibairen irudia. Idazle honengana aunitzetan hurbiltzen da Julio Caro, ez bakarrik datuak hartzeko, bere ideiak pentsarazteko ere, balio diote anaiari.

**Zinemagintzan aritu zara, horretan poiekturik duzu?**

Zinema alde batera utzia daukat. Arazo nagusi bat dago, zinemagintzarako diru iturri nagusiak lortu behar direla. Banatzaileari interesatzen zaion zinea egin behar duzu, hau da, ikuslearengana aunitz hurbiltzen dena, eta nik publikotik arras banatua nago. Bertze mundu batean bizi naiz, iraganaren munduan. Gogoko dudan pelikula egiteko aukera izanez gero, ilusioa berpiztuko zitzaidan, begiak argiagoak izanen nituen.

**Anaiak eskertuko zuen liburuaren aurkezpena?**

Nik uste dut baietz. Liburua arras polita geratu da, familiak editatu du eta kontent izanen zela uste dut. Bereziki horregatik egin dugu Itzeako aurkezpena.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias, 2002ko Otsailaren 26a

*«Modu batean edo bestean, urte batez edo pare bat urtez jarraitu nahi nuen. Luis Mari Bengoak, Besagaineko buruak, deitu zidan lehengo astean eta eurekin partidak jokatzeko eskaintza egin zidan. Era berean, Lehen Mailako Txapelketan parte hartzeko aukera eman zidan, eta nire esperientzia gazteekin baliatzekoa. Eskaintza polita iruditu zitzaidan eta baiezkoa eman nion».*

Inaxio ERRANDONEA
Alkaiagako pilotaria
EGUNKARIA 02-02-26

*«Egoera ez da hain txarra basoari dagokionez. Txarrena da suteak izaten direnean bateren bat hiltzen dela. Sute asko gizakiaren erruz gertatzen dira: adibidez, sasiz betetako lekuak garbitzeko suak egiten dituztelako-eta. Badaude arriskua gutxitzeko moduak, baina ez dira behar bezainbat erabiltzen»*

*«Bertako espezieen artean, haritzarena da egoera kaxkarrena».*

Migel Mari ELOSEGI
Leitzako biologoa
GOIENKARIA 02-02-22

## • 11 GALDERA LABUR •



## Julian IANTZI *ETBko aurkezle lesakarra*

**Esperientzia behar da «Sorginen Laratza»ko sexu tertulian aritzeko?**
Teoria denak badakigu. Praktikarik ez da behar, baina lagungarria da.

**Argiarekin edo ilunpean?**
Auniztan miraria denez, edozein lekutan eta edozein argirekin.

**Nafar aunitz eta bi lesakar saio horretan. Zergatik?**
Ulertzeko euskara garbia dugu. Saiokoek kasualitatea dela erran digute.

**Klaudio Landa, Euzkitze edo Joxeantonio Arana?**
Hiruak hagitz onak dira, baina nik irri Aranarekin egiten dut.

**Elkarrizketa saioa egitea zaila da?**
Zailena kamera aitzinean natural agertzea da, baita aitzinetik egin behar duzun dokumentazio lana.

**Canal 4-n erdaraz edo ETBn euskaraz, non moldatzen zara hobe?**
Zoritxarrez ikasketak erdaraz egiten ditut eta errexago memorizaten dut erdaraz, baina aukeran, ETBko lana.

**Famaren alde ona eta txarra?**
Begiradaren bat bai, baina ez dut famaren eragina nabaritu.

**Itxura onak ateak zabaltzen ditu?**
TB ikusi egiten da eta planta onak laguntzen du, baina denboran irauteko profesional ona izan behar da.

**Telebistako saiorik gustokoena?**
Albistegiak, kirolak, eta aitortzen dut... «Operación Triunfo» gustatu zait.

**ETBn pilota eta futbola bertzerik ez dutela ematen diotenei, zer?**
TBn ikusten dena ikuslegoak nahi duena da. Ikuslerik ez bada, fuera!

**Zein duzu kirolik gustokoena.?**
Aritzeko paleta-goma, ikusteko denetik.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERRI
ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: [illegible] - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA



LABE-ZAK
☎ 948631076 • BERA

PRODUCTOS ARTESANO
ERROTAZAR
Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

TXIRULA
loredenda
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
- bitxixeriak -
- opariak -
- enmarkazioak -

INGURUMENA

# Oronozko haztegiko 8.678 izokinkume askatu zituzten Endarlatsan

## Otsailaren 26a, Ingurumen Departamenduko teknikarien eskutik

**ttipi-ttapa**

2000. urteko abenduan ernaldu, joan den urtean Oronoz-Mugairiko arrain haztegian sortu eta denboraldi honetan markatutako 8.678 izokin kumeak otsailaren 26an askatu zituzten Endarlatsa inguruan Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamenduko teknikariek. Horretarako, Berako Ehizi eta Arrantza elkarteko kideen laguntza izan zuten.

Bidasoako Izokina berreskuratzeko prozesuan azken pausua da errekan askatzea. 14 hilabetez haztegian kontu ondotik, Endarlatsara eraman dira. Bidasoak argindar zentral aunitz ditu eta hori arriskutsua da izokin gazteentzat. Endarlatsatik, zuzenbidean, itsasorako bidea hartuko dute.

1989an hasi ziren Bidasoako izokinak markatzen. Arrantzan jautsiera haundia somatu zen 1960. eta 70. hamarkadetan. 1982an ez zen izokinik arrantzatu.

1989. urtetik 116.458 izokin markatu dira eta Bidasoara 3.937 izokinen itzulera kontrolatu da. Iaz, 334 izokinen itzulera kontrolatu zuten teknikariek.



NAFARROAKO GOBERNUA

**Ingurumen Departamenduko teknikariek otsailaren 26an libratu zituzten izokin kumeak, Endarlatsako presa ondoan.**

## Zergatik daude amoarrain guttiago Bidasoan?

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamenduak eta Frantziako Institut National de la Recherche Agronomique (INRA) zentruak amoarrainen kopuruak Bidasoa errekan izan dituen gorabeheren arrazoiak aztertuko dituzte hurrengo hiru urteetan. Errekaren beheitiko eta erdiko aldean goiti eta beheiti egiten du amoarrain kopuruak, izokinen kopurua bikoiztu egin den bitartean. Errekaren goitiko aldean aldiz, Baztan inguruan, amoarrain kopurua mantendu egin da.

Udaberrian hasiko dira lan hau egiten, amoarrain populazioaren dinamika, Bidasoa errekaren ur-etorria eta uraren erabilera, uraren kalitatea eta gisakoak aztertuz. Amoarrainen bizitzaren ziklo osoa aztertu nahi dute Nafarroako eta Frantziako teknikariek.

Azken urteotan Bidasoaren uraren kalitatea hobetu egin da. Ingurumen Departamenduko teknikarien ustez, erreka osoan depuradorak jartzeak eragin ona izan du eta hori izokin kopuruaren handitzearekin nabari da. Izan ere, izokinaren presentzia uraren kalitatea neurtzeko modu ezin hobea da eta azken arrantza denboraldia 25 urteotako onena izan da izokinei dagokienez. Ikerketan aztertu egin beharko da izokinak goiti egitearen ondorio ote den amoarrainak beheiti egitea.

Nafarroako Gobernuko datuen arabera, Bidasoa da bere ibilbide osoan uraren kalitate onena eskaintzen duen Nafarroako zazpi erreketako bat. Bertzeak Ezkurra, Urederra, Erro, Urrobi, Eska eta Aragon dira.

Ikerketarekin batera, behar gehien duten erreka zatietan erreka mindegietan hazitako amoarrainak botako dira. Modu berean, Bidasoako amoarrainak piszifaktoriatan haziko dira, horretarako erreka buruan soberan izaten diren amoarrain gazteak aprobetxatuz.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
· Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
· Ortzegun eta ortzirialetan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 · Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea · 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elkarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas
· Parketak - Tarimak
· Kutxillatzea eta bernizatzeak
· Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735 - 607 406781

BERA

# Hirugarren Gazte Jokoak antolatu ditu Berako Gazte Asanbladak

## Larunbatean egindako bizi-poteoarekin eman zitzaien hastapena

**Asier GOGORTZA**

Aurten Berako Gazte Asanbladak hartu du bere gain Gazte Jokoen antolakuntza, herriko gazteen arteko giroa biziberritzeko asmoz. Izan ere, Gure Txokoak antolatu zituen lehendabiziko bi aldietan arras giro polita sortu baitzen koadrilen artean. Iaz ez zen Gazte Jokorik egin, bainan 2002ko edizioa martxan da dagoeneko.



ARGAZKIA: AYLA

**Iaz ez zen Gazte Jokorik izan. Irudia 2000ko udakoa da.**

Bizikletak eta sagardoa izan ziren nagusi lehendabiziko proban, izan ere hainbat gazte ibili zen ostatuz-ostatu jokoen hastapena ospatzeko. Lehendabizikoa baino gogorxeagoa izanen diren bertze 4 proba gainditu beharko dituzte partehartzaileek martxoaren 23a bitartean. Larunbat honetan pintxoak egiten eta muralak pintatzen duten abilezia erakutsi beharko dute. Martxoaren 16an, berriz, kirola eta kultura uztartzen dituzten proba konbinatuak eginen dituzte, eta azken egunean, martxoaren 23an, hainbertze arrakasta izaten duen parodia antzeztu beharko dute Kultur Etxean. Ondotik, eta hasi bezala ongi akautzeko, afari mundiala eginen dute Zalain jatetxean.

MARTXOAK 8

### *Ekitaldi franko ospatuko dira Emakumearen Astearen barnean*

Asteazken honetan, martxoaren 6an, Alaitz Kolektiboko Monica Tancok estresa eta antsietateari buruz emanen duen hitzaldiarekin hasiko da aurtengo Emakumearen Astea. Martxoaren 7tik 10era, berriz, azken urteetan bezala Kultur Etxean ikusgai egonen dira Berako emakumeek egindako eskulanak.

Martxoaren 8an urteroko afaria Ansonean eginen dute herriko emakumeek. Afalondoa alaitzeko Irats taldea ariko da kantu kantari. Izena eman nahi duena oraindik tenorez ibilki da, aski du Ansoneara deitu edo bertara agertzea.

Azkenik, erran behar da Emaitza emakumeen antzerki taldeak "El sueño de las 5" aurkeztuko duela igandean Kultur Etxean.

FLASH

### *"Zure unibertsoa irudikatu"*

Gai hori ardatz hartuta Bortzirietako hainbat ikastetxeetako ikasleek marrazki lehiaketa batean parte hartu dute egunotan. Partehartzaile guziek opari bana jasoko dute, eta irabazleentzat bertze sari potoloagoren bat ere izanen da. Martxoaren 7a dute lanak aurkezteko azken eguna, eta marrazkilari guzien lanak martxoaren 12tik 15era egonen dira ikusgai Berako Kultur Etxean arratsaldeko 5etatik 7etara. Sari banaketa martxoaren 15ean eginen da, arratsaldeko 6etan toki berean, eta aipatu behar da epaimahaia nork osatu duten: Berako La Caixako (antolatzaileak) arduraduna, Kultur Dinamizatzailea, Kultura Zinegotzia eta herriko auzapeza.

### *Nafarroako bertso liga*

Bertsozaleek hitzordu berri bat izanen dute asteburu honetan Beran, izan ere martxoaren 9an bertso afaria eginen da Iamotenean, Nafarroako bertso ligaren barneko kanporaketa bat jokatzeko aitzakian. Etxabe eta Juan Mari Lopez lesakarrekin batera Ekintza Landa eta Nerea Bruño ariko dira afalondoan bertso kantari. Otordurako izena emateko Errekalden hartu beharko dira txartelak, eta hitzordua arratseko 9,30etan izanen da.

Haritza
belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • ✆ 948 630652

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Xirdil
Altzate 1 • BERA
✆ 948 631462



## PERTSONAIA

**Iñaki LARRALDE**

### *«Gazteena izanik, ez nuen espero Euskal Ligako finalera ailegatzea»*

Gazte mailako Euskal Ligaren finala jokatu du larunbat honetan Azkoitian Iñaki Larralde, Txaruta taldeko pilotari lesakarrak. 16 urterekin, kategoriako gazteena izan da eta ustekabean ailegatu da finalera: *«Lehenbiziko ligaxkan lau partidak irabazi nituen eta finalerdian, Elgetako Azagirreri bi partidak irabazi dizkiot»*. Elgetan 22-14 irabazi ondotik, otsailaren 15ean Sunbillan jokatutako itzuliko partidan 15 tantu egitea aski zuen. Haseran urduri atera zen Larralde, 1-6 eta 3-8 galduz. Baina zortzina eta hamahiruna berdindu ondotik, 22-15 irabazi zuen. Finala Bellosoren kontra jokatu du. Iñaki Larralde aurrelaria da. Bere ezaugarriei dagokienez, *«boleaz sartzea gustatzen zait eta min egiten dut, baina ezker kolpea aunitz hobetu behar dut oraindikan»*.

**LESAKA**

# Brontzeko domina lortu du Irlandan Beti Gazteko sokatira taldeak

## Munduko txapelketan hirugarren izan zen 600 kiloko kategorian

Aitor AROTZENA

Beti Gazteko sokatira taldeak brontzezko domina ekarri du Irlandan jokatutako Munduko goma gaineko klub arteko txapelketatik. 560 eta 600 kilotan lehiatu zen herriko taldea, duela bi urte urrezko domina lortu zuen kategoriatan hain zuzen. Pisu arinean ez zuen lehen fasea gainditu, bere multzoan gero txapeldun eta azpitxapeldun izan zirenak egokitu baitziren.

600 kilotan, aldiz, finalerdirako txartela lortu zuen, baina ezin izan zuen Abadiño gainditu. Brontzerako lehian, Ingalaterrako Woodeine taldea menderatu zuten lesakarrek. Ez da duela bi urtekoa bezain bikaina, baina aurten lesioekin izandako arazoak kontuan hartuz, emaitza polita izan da.

Agortxeberriko Karmelo eta Joxe Angel Mitxelena, Bixente Igartzabal, Oskar Telletxea igantziarra, Iñaki Igoa, Eloi Ordoki beratarra, Beñardo Iantzi, Alejo Sarobe eta Gerardo Telletxeak osatu zuten taldea, Josu Irigoien prestatzailearekin eta Antonio Mujika botilleroaren laguntzarekin.



ARGAZKIA: JOXE TELLETXEAK UTZIA

**Beti Gazteko taldea Irlandako Cork herriko kiroldegian tiratzen, Munduko goma gaineko txapelketan. Duela bi urteko urrezko bi dominetatik urrun gelditu baziren ere, meritu handiko brontzezko domina lortu dute aurten 600 kiloko kategorian.**

## ERRETIRATUAK

### *Aita eta Aitatxien Eguneko afaria antolatu du martxoaren 19an San Fermin jubilatu elkarteak*

Martxoaren 19an, Aita eta Aitatxien Eguna ospatuko du San Fermin erretiratu elkarteak. Horretarako, arratseko 9etatik aitzinera afaria izanen dute: entremes hotz eta beroak, bildotsa txilindron erara eta kaiatua izanen dute menuan, ardo, txanpain, kafe eta koparekin bustia. Txartelak 15,03 eurotan (2.500 pta) salgai izanen dira martxoaren 16a bitarte egoitzan.

Bertzalde, apirilaren 5erako Zugarramurdira joanen dira San Ferminekoak. 9etan abiatuko dira eta Bertizko Parkea bisitatu ondotik gosaldu eginen dute. Zugarramurdiko lezeak bisitatu eta gero, Urdazubiko Burkaitzean bazkalduko dute. Itzulerakoan Sara ere bisitatuko dute. Txartelak 15 eurotan salgai daude apirilaren 3a bitarte egoitzan (Zugarramurdiko lezeetara sarrera barne).

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948637573 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

## ETXALAR

# Hiru hilabeteren ondotik hurrengo astean irekiko da Herriko Ostatua

Iñaki Pikabea Berako Zalain ostatuko sukaldaria izanen du jabe berria

**Joseba eta Nerea**

Joan den abenduaz geroztik herritar guzien ahotan zebilen Jabi Urmenetak 8 urtez irekia kontu duen ostatua itxi ondotik berriz ere irekiko ote zen. Udalak lehenbiziko aldiz plazoa ireki eta aurkeztutako eskaintza bakarrari ostatua adjudikatu ondotik, azkenean interesatua atzera bota zen. Ondorioz, udalak berriz ere plazoa zabaldu zuen eta oraingoan bai badu jabe berria. Hain zuzen Berako Zalain jatetxeko sukaldaria den Iñaki Pikabea Zubieta izanen da hemendik antzinera ostatua eramanen duena. Berak aipatu digunez *«ilusio handiarekin hartzen dut erronka hau, neretzat esperientzia berria baita. Sukaldari lanetan eskarmentua badut baina lehenbiziko aldia da ostatuaren ardura ere hartuko dudala»*. Nolatan bururatu zitzaion ostatua hartzea galdetu genionean zera erantzun zigun: *«Nik hemen, Etxalarren bertan, Larraburuan sukaldaritza ikastaroa ematen dut eta bertako emakumeek aipatu zidaten Herriko Ostatua hartzeko aukera banuela eta pentsatu ondotik animatu egin nintzen. Orain, azkeneko ukituak ematea falta zait, nahiz eta ez dudan ostatua orokorrean aunitz aldatuko toke pertsonal bat eman nahi baitiot»*.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Iñaki Pikabea sukaldaria arduratuko da Herriko Ostatuaz.**

Pikabea, eskaintza egiterakoan udaletxeak paratutako baldintzei egokitu zitzaion. Horrela, hilabetean 45.000 pezetako errentan hartuko du ostatua heldu diren 10 urteetarako eta ondotik bertze 5 urtez luzatzeko aukera izanez. Beraz, heldu den astetik aitzinera berriz ere zabalak izanen ditugu Herriko Ostatuko ateak.

## FLASH

### *Zirimolanek afaria sagardotegian*

Zirimolan kultur elkarteak sagardotegira joateko autobusa antolatu du. Martxoaren 2an akautu zen izen emateko epea eta hurrengo larunbatean, martxoak 16, joanen dira Sara, Azkain, Bera eta Etxalartik animatutako guziak afaltzera.

### *Udal garbitzaile berria*

Mari Jose Minguito eta Mari Carmen Sansiñenaren ordez Blanca Esther Bertiz aukeratu du udalak garbitzaile lana betetzeko. Aurkeztutako bi eskaeretatik berea izan da aukeratua eta ondorioz Blanca Esther izanen da bertzeak bertze Landagain eskola, eskola zaharrak eta udaletxearen garbiketaz arduratuko dena.

### *Udalak 900 euroko dirulaguntza bidaliko du Argentinara*

Maria Isabel Arribillagak "Congregación de misioneras esclavas del corazón de María"ren izenean eginiko dirulaguntza eskaerari jarraikiz, herriko udalak 901,52 euroko (150.000 pezeta) dirulaguntza ematea adostu du. Dirulaguntza honek Charatako (Argentina) etxebizitzen proiektu bateko instalazio elektrikoa aitzinera ateratzen lagunduko du. Ez da lehenbiziko aldia Etxalarko udalak gisa honetako dirulaguntza bat ematen duela, duela urte bete ere "El Salvador"erako dirulaguntza bat eman baitzuen.

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Ezlegara 41, Tfnoa: 948 630 808 - BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

LEGARRA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

IGANTZI

Herria ezagutuz



# Haurren gurasoak haurtzaindegia antolatzeko bildu dira

## Jose Mari Yanci izanen da hurrengo bi urtetan Biltokiko lehendakaria

**Oskar TXOPERENA**

Oraindik eskolara joateko adinean ez dauden haurren gurasoek, 1999 eta 2000ean 15 haur jaio zirela aprobetxatuz, herrian haurtzaindegia paratzeko pausuak ematen hasi dira, edo guttienez informazioa biltzen. Proiektuaren bultzatzaileek egoera berean dauden guraso guziak deitu zituzten otsailaren 23an Biltokin egin zen bilerara. Gaia oraindik sobera arautu gabe dagoela ematen badu ere, Udala eta Eskolarekin harremanetan hastea erabaki dute, informazioa elkartrukatzeko. Hasiera batean hamabiren bat haurren gurasoak agertu omen dira prest proiektuarekin bat egiteko. Eskolan lekuarekin arazoak dituztenez, medikuaren etxea leku egokia iruditu zaie.



Oskar TXOPERENA

**Hiru urte betetzen dituzten urtean hasten dute haurrek eskolako ibilbidea, igantzikoan behinik behin. Orain, eskolara sartu bitartean haurrak zaintzeko haurtzaindegia antolatu nahi dute gurasoek.**

### *Biltoki Elkarteko batzarra*

Otsailaren 23an egin zen Biltoki elkarteko urteko batzar nagusia eta gaur egun bazkide diren 200 lagunetik 60 bat bertaratu zen. Ohikoa den moduan, elkartearen martxaz informatu zuen Juntak hasieran eta ondotik etorri ziren gairik mamitsuenak. Sukaldea moldatu ondotik, jantokia edo aretoarekin egin beharrekoaz erabaki beharra zegoen. Jantoki guziko zola eta zokaloa moldatzeko eta berogailua paratzeko erabakia hartu zen. Horretarako bazkide bakoitzak 90 euro inguru ordaindu beharko ditu. Ondotik, Juntarako zortzi lagun aukeratu ziren: Lehendakari lanetarako Jose Mari Yancik izan zuen boto gehien eta Gurutze Iribarren izan zen aukeratua lehendakariordetarako. Bokalak, berriz, hauek izanen dira: Mikel Arburua, Amador Txoperena, Anuntxi Txoperena, Virtudes Iguzkiagirre, Maite Zelaieta eta Angel Urtxegi. Azkenik, ordaindu gabe gelditzen diren edariei buruz eztabaidatu zen. Arazoarekin akautu nahian, elkartean kamarak paratzeko erabakia hartu zuen Batzarrak.

### *Berrizaungo Ocrera*

Berrizaundik Doneztebe aldera doaien trenbidea hartuz gero, hirurehunen bat metrotara "Ocrera"ren aztarnak ikusiko ditugu, bizpahiru pareta bertzerik ez. Daniel Tornerok egin zuen 1915an herriko lurrak aprobetxatzeko lehendabiziko eskaria (10/3): *«tierras colorantes en tonos amarillos, rojos y negros para su fábrica»*. Izan ere, garai hartan lurrak erabiltzen ziren pinturak eta koloranteak egiteko, eta, nonbait, igantziko lurrak aberatsak ziren koloreak lortzeko. Lurra bertze zenbait lekutatik ere ateratzen bazuten ere, Onin parajearen ingurua zuten gustokoena eta handik gurdiz eramaten zuten Berrizaunera (18/17): *«explotación de tierras entre Erroizko erreca y Onin a la regata de Larrondo»*. Esplotazioarengatik urtero 500 pezeta ordaintzeaz gain, tonelada bakoitzeko bi pezeta ordaintzen zuten. 1940an Industrias y Abonos de Navarrak erosi zuen fabrika eta 1971era arte izan zen bere jabe, Basilio Maritxalar jaunari saldu zion arte, minetako fabrikarekin batera.

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313


EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

BERA
✆ 948630155
BERA

ARANTZA

# Pilota eskolako gaztetxoek emaitza ederrak lortu dituzte

Joseba Pikabea azpitxapeldun izan da klub arteko Euskal Ligan

Nerea ALTZURI

Pilota kirol maitatua izan da herrian betitik: pilotari haundiak izan ditugu eta zaletasunak sekula ez du huts egin herrian, inguruetakoan dagoen gisan. Maiz anaiek euren karrera profesionalaren errestoa utzi dute, segidan Errandonea, Agesta gazteak... baina ikasle izan diren moduan irakasle ere direnak. Eta orain, zer erranik ez herriko gaztetxoen afizioari eta mailari buruz.



Herriko pilotari gazteek emaitza ederrak lortu dituzte.

Euskadiko Klub arteko liga txapelketan Joseba Pikabea azpitxapeldun gelditu da, Ekaitza Elkartearen izenean. Abadiñoko finalean 22-5 galdu zuen Castilloren kontra.

Bi hilabete lehenago Bidasoaldeko Belate Txapelketa jokatu zen, Bortziriak, Irun, Hendaia eta Hondarribiako pilotariekin.

Finalak Beran jokatu ondotik, Ekaitzako pilotarien lau txapel lortu zituzten: Jon eta Markel Jorajuria benjaminak, B mailan; Imanol Mitxelena, Borja Iturria eta Joseba Madariaga benjaminak A mailan; Xabi Iturria, Eneko Ordoki eta Imanol Lukanbio infantilak C mailan; eta Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena, kadeteak, A mailan.

Bertze bikote bat azpitxapeldun suertatu zen: Jon Altzuri eta Alberto Fagoaga, alebinen B mailan.

## *Herriko Arkupeak elkartearen besta*

Joan den igandean, martxoaren 3an, Arkupeak elkarteko aranztar pentsionista eta jubilatuek euren besta izan zuten, bertze herrietan egiten den gisara. Eguerdiko meza ondotik 50 bat lagun bildu zen Zahar Txokon bazkaltzeko: entremes hotz eta beroak, errain zopa, legatza, solomilloa eta postrea izan zituen osagai menuak, edarien laguntzarekin, noski. Umore ederra ere ez zen faltatu mahaiaren inguruan.

Ondotik, ohiko dantzaldia egin beharrean, musean aritu ziren herritarrak goxo-goxoan. Egun ederra pasatu zuten, aspertzeko betarik ez baitzuten izan.

Segi honelaxe aunitz urtez!



PERTSONAIA

Joseba PIKABEA

## *«Txapelketa osoan Castilloren kontra bakarrik galdu dut»*

Kadete mailako klub arteko Euskal ligaren finalean izan zen Joseba Pikabea, baina 22-5 galdu egin zuen Castillo durangarraren kontra: *«Lehenik, Bortzirietako pilotarien artean jokatutako bortz partidak irabazi nituen. Gero ligillan partidu bakarra galdu nuen, Castilloren kontra. Finalerdian Berrizko Larrañagari bi partidak 22-16 irabazi nizkion. Finala ezinezkoa izan zen, Castillo bertze maila batean baitago»*. Binaka aritzeko eskubidea ere lortua zuen Beñat Mitxelenarekin batera, baina ez zioten utzi, banaka aritu behar zelakoz. *«Sake luzea»* da 15 urteko pilotariaren ezaugarri nagusia eta ezkerrarekin hobetu behar du.

KOXKILA
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

Bakailuak
Inportazioko bakailua
Kalitate onena • Faroe irletakoa
bakailu gezatua bere puntuan
Enkarguak hartzen dira
San Juan Plaza, autobus geltokian
Tel: 943 627131 • IRUN

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
• Diabetia • Asma • Buruko mina • Orinen izerdia
• Larru azaleko alergia • Zizareak • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bizkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Orduak eskatu
San Marcial, 7-4 IRUN

# Irakaskuntza publikoa

## 2002-2003 Ikasturtea



**IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA:**
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH
**otsailaren 25etik martxoaren 15era bitarte**

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntza**
**apirilaren 29tik maiatzaren 10era bitarte**

**Nork bere seme-alabentzat hautatu duen ikastetxean eskaera bakarra aurkeztuko du, baina, beste ikastetxe batzuk ere hautatu ahal izango ditu lehentasun hurrenkeraren arabera.**

**Argibide zehatzagorik nahi izanez gero, 948 426 617 telefonora deitzea baduzue, edo Hezkuntza eta Kultura Departamentura joatea. (Santo Domingo K., z/g, Iruña)**

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

**Gobierno de Navarra**
Departamento de Educación y Cultura

Irakaskuntza kalitatezkoa guztiontzat

MALERREKA - BERTIZARANA

# Haur kantari txapelketako lehen saioa egin zen Bordatxon

Inguru honetako 19 ordezkari aritu ziren, bakarka, binaka eta taldeka

ttipi-ttapa

Nafarroako haur kantarien txapelketa otsailaren 23an abiatu zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Inguru honetako 19 ordezkari izan ziren, bakarka, binaka nahiz taldekako lehian. Beratik Labiagako Attonarriak eta Ttipitarriak taldeak, Alaitz Arribillaga eta Eila Altzugarai bikotea eta Estitxu Pinatxo bakarlaria; Jesusen Bihotzako Erentzu taldea, Uxua Andueza eta Josune Elgorriaga bakarlariak eta Amaia Izkierdo eta Ana Serrano bikotea arituziren; Goizuetako Nerea Zabaleta eta Bianditz Narbarte bakarlariak eta Bai ta ez bikotea; Leitzako Saio Iraola eta Goretti Kalderon bikotea, Orkatz Erbiti bakarlaria eta gaztetxoen eta txikien taldeak plazaratu ziren; Elizondoko Maialen Braña eta Naikari Amiano bikotea, Lesakako Maider Etxandi bakarlaria eta Doneztebetik, udal musika eskolatik egindako taldea eta Maria Iraola eta Paula Zunzarrenek osatutako bikoteak aritu ziren.

Martxoaren 24an eginen da finala Iruñeko Gaiarre antzokian.



*Bienveri omenaldia*

**Duela gutti jubilatu zen Legasako postaria, Bienvenida Domeq, bizialdi luzea lanean eman eta gero. Berarekin ospatzeko, eta ongi merezitako omenaldia eginez, bazkaritan elkartu ziren Malerreka eta Bertizaranako postariak. Giro ederrean, oparitxo bat eskaini zioten oroigarri gisa, hagitz eskas, zer erranik ez, bere merezimenduetarako. Postariek diotenez, «ezbairik gabe, eredu izanen da guztiontzat, bai izaeragatik, bai lanak betetzeko moduagatik. Beti arte, Bienve, eta luzaro gozatu erretiroan.**

ITUREN

## Aerobic ikastaroa antolatu du Ibintza kultur taldeak

Iban ISASI

Astearte honetan, martxoak 5, arratseko zortzi terdietan hasi da Ibintza kultur taldeak antolatu duen aerobic ikastaroa. Jende aunitz animatu da, hala ere, aerobic-ean aritu nahi eta izena emateko epea pasatu bazaizu, nahikoa izanen da Herriko Etxeko ganbarara agertzea aerobic-ean ari diren egunetan, eta arduradunetako batekin solastea.

### *Herriko Ostatua moldatzen*

Herriko Ostatua itxi eginen dute moldaketa lanak egiteko. Asteazken honetan arkitektuarekin biltzekoak ziren, zer gauzatze ahal den jakiteko.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara
✆ 900 704704
✆ 948 637404

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BEINTZAko OSTATUA

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

DONEZTEBE

# Malerrekako herritarren kezka eta premien berri jakin zuen Nafarroako Arartekoak

## Otsailaren 20an alkatearekin bildu zen eta eskola bisitatu zuen

**ttipi-ttapa**

Otsailaren 20an Doneztebera bisita egin zuen Maria Jesus Aranda, Nafarroako Arartekoak. Doneztebeko alkatearekin bildu zen Herriko Etxean eta eskualdeari dagozkion kezkak eta kexuak agertu zizkion honek. Lehenik Musika Eskolaren finantziazioari buruz solastu zuen Miguel San Miguelek. Izan ere, orain arte Musika eskolaren finantziazioaren heren bat Doneztebeko Udalak ordaintzen du, bertze herena gurasoek eta azkena Nafarroako Gobernuak. Baina dirulaguntza hau jausten joan da eta gaur egun ez da ailegatzen gastuak estaltzera. Orain, Musika eskola berria eraikitzen ari dira Doneztebeen, langabezian dauden langileak hartuz eta materiala Udalak ordainduta. Aurrekontuetan musika eskolaren sailarik ez dagoela adierazi zion alkateak arartekoari. Bertzetik, Doneztebe eta Leitza lotzen dituen NA-170 errepidearen moldaketa premiei buruz aritu ziren. Berriki Zubieta eta Saldiasko bidegurutzearen arteko tartea moldatu dute, baina bertze 27 kilometro baditu errepide honek. Bertze gairik ere aipatu zen bileran. Adibidez, lur industrialak eraikitzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen azken plangintzan, Malerreka inguruan ez da lur eremu bakar bat ere aurrikusi eta bere arrenkura azaldu dute Malerrekako alkate-zinegotziek. Bertzalde, Doneztebeko medikua erretiratu zenetik, lanpostu hori modu finkoan ez dela bete adierazi zion alkateak Maria Jesus Arandari. Eraberean, apartamentu tutelatuen inguruan Udalak duen ezinegona adierazi zion.

Ondotik, Doneztebeko ikastetxera joan zen arartekoa, San Miguel eskola eta Mendaur institutuko ikasle eta irakasleei arartekoaren lana zein den erakusteko. Azkenik, udal liburutegira joan zen, herritarren kexu eta arrenkurak biltzera.



Artxiboa

**Udal kiroldegiaren kudeaketa egiteko lehiaketa egin du Doneztebeko Udalak. Martxoaren 4an akautu da proposamenak aurkezteko epea.**

### *Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak Ezpelurarekin*

Ezpelura elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Emakumearen Egunaren inguruan. Ortzegunean, martxoak 7, Haizeako hezitzaileak solasaldiak eskainiko du Malerrekako Mankomunitateko egoitzan, arratsaldeko 7etatik aitzinera, «Emakumea bigarren heldutasunean» gaiari buruz.

Martxoaren 8an, diapositiba lehiaketaren sari banaketa eginen da.

Martxoaren 16an, arratsaldeko 6etatik aitzinera, «Yo soy esa» izeneko antzerki-monologoa izanen da ikusgai Doneztebeko liburutegian.

Bertzalde, jakina denez, martxoaren 23an Donezteben ospatuko den Landa eremuko emakumeen 5. topaketa prestatzen buru-belarri ari da Ezpelura elkartea.

ola
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

Okindegia Jatetxea
Uxoa
Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

ADOS
ITUREN
Laster hasiko gara eraikitzen **4 etxebizitza elkar-atxikiak**.
Badute lur eremua ere.
Deitu lehenbailehen erreserbak egiteko.
✆ 948 451 841
607 978 656

# Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH
# Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA
# Batxilergoetan eskaintza OSOA



**LEKAROZ:**

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**
- **LOGSE BATXILERGOA I eta II**
  - Natur eta Osasun Zientziak / Injinerutza Ibilbidea
  - Giza eta Gizarte Zientziak
  - Teknologia
- **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**
  - Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak Ingurune Naturalean Gidatzea





**ELIZONDO:**

- **Lanbide Heziketa Egokitua**
- **Lanbide Sarrerako Programa Berezia Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea**
- **Lanbide Sarrerako Programak**
  - Bulego eta Saltetxe Txikirako Laguntzailea
  - Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea
- **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**
  - Kudeaketa Administratiboa
  - Mekanizazioa
- **Goi Mailako Heziketa Zikloa**
  - Administrazioa eta Finantzak







## INSTALAZIOAK

- **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- **5 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet.
- **3 Marrazketa gela**
- **2 Teknologia gela**
- **Gizarte tailerra**
- **7 Ikusentzuteko gela**
- **2 Liburutegi:** 20.000 ale.
- **Tailerrak:** soldadura, neumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- **Jangela: DBHko** 1. zikloentzat.
- **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



# I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

## Bigarren Hezkuntza Institutua




**LEKAROZ**

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROZ (Baztan)
☎ 948 58 18 03
948 58 18 36
Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

**ELIZONDO**

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
948 58 18 40
Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es


## Izen ematea:

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:**
  **2002ko otsailaren 25etik martxoaren 15era**
- **Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa**
  **2002ko apirilaren 29tik maiatzaren 10era**
- **Goi Mailako Lanbide Heziketa**
  **2002ko ekainaren 3tik 11ra**

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

Nafarroako Gobernua — Gobierno de Navarra

## GOIZUETA

# Ia milioi bat euro gosta dira inauguratu berriak diren zeharbidea eta Herriko Etxea

### Txakolindegira irteera antolatu du Umore Ona elkarteak martxoaren 16rako

**Esteban AROTZENA**

Otsailaren 23an inauguratutako Madelenatik Zibola bitarteko zeharbidea eta Herriko Etxea ia milioi bat euro gosta dira, 979.458 euro edo 146.312.696 pezeta zehatzago esanda. Zeharbidearen 620.524 euroetatik (103.256.489 pezeta) 363.434 euro Nafarroako Gobernuko bi departamentu ezberdinek subentzionatzen dute. Gainerakoa, jakina, herriak ordaindu beharko du.

Udaletxeko lanak ordaintzeko erabili diren 318.874 euroak (53.056.207 pta) herriko kutxetatik atera dira guztiak, oraingoz ez baita dirulaguntzarik etorri Iruñetik. Dena den, hurrengo Hirurteko Planetik zerbait eskuratuko denaren konpromezuren bat jaso omen du Udalak Nafarroako Gobernutik.

**HERRIKO ETXEAREN ETA ZEHARBIDEAREN HISTORIA**

Atzera begira, herriko artxiboetatik berreskuratu eta kultur areto berrian ikusgai dauden «harribitxien» artean, orain inauguratutako bi obra hauekin lotura zuzena duten kontuak aurki litezke. Esate baterako, gaur egun arte ezagutu dugun zeharbidea 1916an egin zen 8.650 pezetako aurrekontuarekin.

Herriko Etxea berriz, 1771. urtean eraiki zen eta handik ia ehun urtera oso-osorik erre zen. Artxiboa salbatzea lortu zenaren poza azpimarratzen da orduko hainbat idazkitan.



ESTEBAN AROTZENA

**Herriko Etxearen ganbarak ere itxura ederra hartu du moldaketen ondotik.**

### *Txakolindegira*

Zarauzko Primotxo txakolindegira autobusez eginen den irteera antolatu du Umore Ona elkarteak martxoaren 16rako. Bertan bazkalduko da, jakina. Amaiarenean eta Urrutinean izena emateko epea ostiral honetan bukatzen da.

## ARESO

# Igerilari Osoaren txapelketan aritu dira Maitane Gereño eta Uxue Goikoetxea

### Otsailaren 20an eta 28an lurrikara somatu da herrian



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZARrek UTZIA

**Euskadiko Igerilari Osoaren txapelketan parte hartu dute herriko Maitane Gereño eta Uxue Goikoetxea igerilari gaztetxoek.**

**Juana Mari SAIZAR**

Euskadiko igerilari gaztetxoak, beraien denbora onengatik aukeratuak izan dira, infantil mailako Euskadiko Igerilari Osoaren txapelketan parte hartzeko. Otsailaren 16 eta 17an goiz eta arratsaldez Gasteizko Mendizorrotza igerilekuan aritu ziren. Tximeleta, bizkar, braza eta crowl estiloetan denborak batu eta Tolosako Igarondo taldeko Maitane Gereñok 13. postua lortu zuen. Iaz ere, lan bikaina egin zuen.

Bestalde, eta lehenengo aldiz, Irurtzungo Itxesia taldeko partaidea den Uxue Goikoetxeak 39. postua lortu zuen.

### *Lurrikarak somatu dira herrian*

Otsailaren 20ko epizentroa Irurtzunen izan zuen lurrikara somatu omen zuten batzuk herrian. Otsailaren 28ko lurrikarak, berriz, Areson bertan izan zuen epizentroa. Goizeko 7,15etan somatu zen eta Richter eskalan 3,1ºko indarra izan zuen. Askok bere etxeetan somatu zuten lur mugimendua, baina ikaraz aparte, ez zuen inolako kalterik sortu.

## LEITZA

# Berdintasunaren aldeko astea

Denontzat prestatutako egitaraua martxoaren 8aren inguruan



ARTXIBOKOA

**Oraindik orain martxoaren 8ko Emakumearen Eguna «ospatzen» da. Zergatik? Garbi dago: diferentziak hortxe diraute.**

**Mikel ILARREGI**

Martxoaren 8aren inguruan Oinarrizko Zerbitzuak eta Kultur Taldeak lau egunetan jarduera ezberdinak antolatu dituzte. Lehena, joan den asteburuan emandako filmea izan zen, «Sólo mía». Martxoaren 7an masaje saio praktikoa izanen da Aitziber Bergararen eskutik, 17:00etan Aurreran.

Martxoaren 8an afaltzeko aukera izanen da Torrean, 21:30etan. Afal ondoren bertso-trama ere izanen da, Amaia Agirre eta Nerea Elustondo bertsolariekin. Unai Elizasu izanen da gai-jartzaile.

Martxoaren 11n, «emakumeen plazerra» gaiari buzuko hitzaldia izanen da 17:00etan Aurreran, Luis Elberdin sexologoaren eskutik. Ekitaldi hauetan umeak dituztenek aitzakirik ez dute izanen bertan parte hartzeko, haurtzaindegi zerbitzua izanen baita.

Guzi honetaz gainera, apirilean eta maiatzean «autodefentsa» ikastaroa izanen da. Ikastaro honetan, «egoera arriskugarrien aurrean har daitezkeen neurriak» edo «autokonfiantza eta norberaren ezagutza» landuko dira. Honekin batera, «erasoak saihesteko teknikak» eta «defentsa pertsonalaren alderdi legalak» ere aztertuko dira.

Hala eta guztiz ere, egun hauetara mugatu beharrean, aldizkari honetan «emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunak» gaiaren inguruan bi gehigarri zabalduko dira urtean zehar.

## MAXURRENEA

### *Maxurrenea kultur etxean bihurtzeko batzordea osatu da*



MIKEL ILARREGI

**Herriko talde gehienak elkartu dira Maxurrenearen kultur erabilera eskatzeko.**

Maxurrenearen erabilpenari buruzko gorabeherak aipatuak ditugu. Udalak batzar berezia egin zuen honen berri emateko. Ondoren, aldez aurretik Maxurrenearen erabilera kultur ekintzetara bideratzeko sinatu zuten herri taldeak deitu zituen. Hauek aurrera jarraitzea erabaki zuten ekimen ezberdinak burutzeko. Horien artean herriko taldeek izenpetutako idatziaren biltzea, prentsaurrea asteburu honetan, manifestazioa martxoaren 23an, firma bilketa... Udalak bide judizialari ekitea erabaki du.

## FLASH

### *Aurrera elkartea zuzendaritzarik gabe*

Aurrera elkartearen zuzendaritza batzordeko kideek adierazi duten moduan, urte beteko epea gainditu dute lan horietan eta erreleboa eskatzen dute. Talde berri baten ezean, urtean antolatzen diren hainbat ekimen ezin izanen lirateke egin.

### *Sagardotegia*

Hala ere, martxoaren 16rako Astigarragako sagardotegi batera irteera antolatu dute. Autobusa 20:00etan aterako da. Autobusaren prezioa 8 eurokoa da eta bazkideek beherapena izanen dute. Izena martxoaren 9a baino lehen eman behar da Gaztañagan.

### *Udaletxeko obrak ezin egin*

Udaletxea berritzeko lanak egiteko, udalak deialdia zabaldu zuen. Eskaintza honetan, enpresa batek bakarrik aurkeztu zuen aurrekontua baina hau aldez aurretik ezarritako diru kopurua baino handiagoa zen. Horregatik hutsik geratu da oraingoz. Azken batzarrean erabaki zutenez, beste deialdia zabaldu dute, aurrekontua %10 igoz eta enpresak gonbidatuz.


Maderas GOMEN



- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)

Faxa: 948 581274

BAZTAN

# Erratzuko plaza moldatu eta labaderoa konponduko dute

San Pedro Xar errekaren bazterrak garbituko dira

Rakel Goñi

Azken egunotan martxa handia bada Erratzun. Pasa den TTIPI-TTAPAn iragarri genuen, San Pedro Xar baseliza konpondu zutela. Orain Plazako Urbanizazioa egiteko lanak onartu ditu Baztango Udalak. Era berean Aranea erreka bazterrean dagoen labaderoa moldatuko da. Aranea eta San Pedro Xar erreketako bazterrak garbitzea izanen da hurrengo lana. Bertzalde zubiaren ondoan zegoen etxea goratzen hasi dira. Hilabete gutxi barru herrira aspalditik joan gabe daudenak ez dute herria ezagutu ere eginen.



XABIER OSPITALEK UTZIA

**Ohitura den bezala, Erratzuko andreek elkartasuneko bazkaria egin zuten San Anton egunean. Ederki pasatu zuten eguna, goitiko argazkia Erratzuko elizan egina da.**

### Bertze farmazia bat Elizondon

Braulio Iriarte karrikan bigarren zenbakian farmazia jartzeko baimena eman diote Ramon Gezuraga farmazilariari. Obra baimena emana da jadanik eta irekiera lizentzia ematen zaionean, ustegabeko gauzarik gertatzen ez bada bederen, farmazia berria, laugarrena, izanen dugu Elizondon.

### Lekarozko kirol instalazioen mantenimendua

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirola eta Gazteria sailak, Lekarozko Institutuko kirol instalazioen mantenimendurako zerbitzua kontratatzeko, lehiaketa aurkeztu du. Martxoaren 18a arte proposamenak aurkeztu ahal izanen dira. Aurrekontua 72.121,45 €koa da. Proposamenen irekiera martxoaren 25ean eginen da.

### Unai Barazabalen aurkezpena

Unai Barazabal Azpilkuetako txirrindularia aurten ere Caja Rural taldean arituko da. Barazabalek iaz lan ona egin zuen, lesio batengatik bizikletatik jaitsi behar izan zuen arte. Afizionatuekin arituko da.

FLASH

### Mendigoizaleen irteerak

Baztango Mendigoizaleak martxoaren 10ean Astigarragara joanen dira. Martxoaren 17an ateraldia Iparlara izanen da.

Baztan Ikastolako Gazte Mendigoizaleak martxoaren 10ean Izpegi-Buztanzelai-Izpegi bidea eginen dute.

### Udalak 100 zakarrontzi erosiko ditu

Otsailaren 2an egindako ohiko batzarrean, Baztango Udalak Goieko enpresari 100 zakarrontzi edo papelera, erostea erabaki zuen. Herrietako karriketan batzuk desagertu dira jadanik eta ez den tokietan jartzea ez legoke gaizki. Orain herritarren laguntza beharko da paperak zakarrontzietara botatzeko.

### Arizkungo Osasun Etxean eskaloia kenduko dute

Ezindu eta adineko pertsonendako oztopo bat zen, Arizkungo Osasun Etxean dagoen eskaloia. Hori dela eta, sarrera errazteko laster obrak eginen dituzte malda bat jartzeko. Bailarako eraikuntza oztopoak kentzea egoki da.

BAZTAN FUNERARIA
Mateo Lertxundi
TANATORIO ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• ✆ 948 580373 • 608 776176

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA



BAZTAN

# Igandean Baztango emakumeen bazkaria izanen da Santxotenan

## Bortz urte beteko dituzte Emakume Langilearen Eguna ospatzen

Rakel Goñi

Duela 5 urte Baztango emakume talde batek, Emakume Langilearen Eguna ospatu behar zela pentsatu zuten. Erran eta egin, aurten ere bazkari eta dantzaldi ederra antolatu dute martxoaren 10ean Santxotena Jatetxean. Baztango eta inguruetako edozei emakumeri irekia da bazkaria, eta 30€rengatik honako menua dastatuko dute: Magra, foie moussa, marisko nahaskia, arrain pudding-a, fritoak, piper beteak, salda, legatza txanpaina eta zizekin edo solomilloa, hostopila izozkiarekin, ardoa, kafea eta txanpaina. On egin eta ongi pasatu!



RAKEL GOÑI

**Santiago Bideko Lagunen Elkarteko kideak Baztango Udalaren ordezkariekin bildu ziren euren proiektuetaz informatzeko eta era berean laguntzak eskatzeko. Argazkian, Patxiko Oiartzabal alkatea, Miguel Angel Adin eta Ignacio Agerrea zinegotziak, elkarteko presidentea Pepe Fernandez, Luis Mari Ruiz idazkaria eta Bittoriano Inbuluzketa elkarteko kidea.**

### *1962koen Kinto Besta*

1962an sortu zirenak martxoaren 23an ospatuko dute aurtengo Kinto Besta. Bazkaria Elbeteko Ostatuan izanen da eta han berean izena eman behar da, martxoaren 21a baino lehen. 6€ aurreratu beharko dituzte apuntatzen direnean.

### *Udaletxean euskaraz*

Baztango Udaleko euskara zerbitzua Nafarroako bertze udalekin batera, «Udaletxean ere euskaraz!» kanpaina martxan jarri du. Ttipi-Ttapa honekin batera foiletoa jasoko duzue informazio guziarekin. Baztango Udalean ere euskararen erabilpena bultzatu nahi da. Bertzeen artean telefonoz, eskabideak betetzerakoan, egiaztagiriak eskatzerakoan, guzia euskaraz egitea lortu nahi da.



PERTSONAIA

Fermintxo GARTXITORENA

### *Sortzen Ikasbatuazen diska grabatu du Amaia Telletxearekin*

Otsailaren 27an Iruñean, Sortzen Ikasbatuaz-ek diska berria aurkeztu zuen. Abestiak Fermitxo Gartxitorena berroetarrak, eta Amaia Telletxea arantzarrak, kantatzen dituzte. Diskaren izenburua "Euskaraz mintza jolas tailerrak" da. Gurasoek euren umeekin euskaraz jolastu ahal izateko plazaratu da lan hau. Denetara 30 kanta biltzen dira CD batean eta honekin batera liburuxka bat banatzen da abestien letra, jokoaren azalpena eta adinarekin. 4.000 diska salgai jarri dituzte. Grabazioa 2001eko abenduan egin zen eta Fermintxok aipatu duenez "bigarren diska grabatzeko gogoa dugu"

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tlnoa: 45 23 74 - IRURITA

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581458 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

SARA

# Herriko Etxeko langileek astean 37 oren eta erdiko lan denbora dute

## Oraino ez da lanpostu berririk sortuko

Aña Mari eta Fred

Legeari jarraikiz, Herriko Etxeko langileen lan denbora ere 35 orenetara pasatu beharra zen urte hastapen huntatik goiti. Haatik, beharrei buru egiteko, zerbitzu teknikoetako eta administratiboetako langileek astean 37 oren eta erdi egin beharko dituzte. Soberan diren 2 oren eta erdi horiek beraz, opor edo errekuperazio bezala hartzen ahalko dituzte, beren lan-sailaren arabera. Bertzalde, Herriko Etxeak jakinarazten du ez dela oraino lanpostu berririk sortuko, langileen aitzineko soldaten atxikitzeak gastu handiago bat suposatzen baitu.



**2001eko azilaren 22ko eskutitzan, prefetak galdegin zuen herri bakoitzean kontseilari bat defentsa arazoetaz ardura hartzeko. Kontseilari hunen lana defentsa arloan bitartekari izatea da. Gure herrian Mixel Libier (argazkiaren eskuinaldean) izendatua izan da.**

### *Frantziako 40. mus txapelketa*

Frantziako 40. mus txapelketaren kanporaketen ondotik, Herriko Etxeko edantegian aritu diren musiarien artean bi bikote sailkatu dira: Serge Bats eta Jean Philippe Amorena; Beñat Etxegarai eta Pettan Elizalde martxoaren 10ean Ezpeletako Pottoka ostatuan kantonamenduko finaletan lehiatuko dira. Martxoaren 17an, Herriko Etxeko Edantegian, Lapurdiko finalak jokatuko dira.

### *Sarako Izarra errugbi taldea*

Sarako Izarra errugbi taldeak txapelketan aitzina segitzeko aukera guziak baditu, otsailaren 23an Amouren zelaian irabazi ondoren. Neurketa borrokatu baten ondotik, Saratarrek azken momentuan 10 eta 9ko emaitzarekin garaile atera dira. Saritzat, jokalariak Gaztetxean gomitatuak ziren arratsean, eta bertan gaitzeko giroan egon dira besta egiten. Ondoko norgehiagoka martxoaren 10ean jokatuko dute Animanian Saint-Jean-de-Marsacq-en kontra. Irabaziz gero, basurdeek aitzina joateko parada ukanen lukete. Horrela ez balitz, martxoaren 17an jokatuko den Saint-Jean-de-Marsacq-en eta Amou-ren arteko partiduaren emaitzaren zain egon beharko dute.

## FLASH

### *Urteko abonamendua*

ttipi-ttapan urteko abonamendua ahal bezain laister pagatzea galdetzen da. Herriko Etxeko edantegian eskuratzeko 16 euro ordaindu behar da, etxean errezibitzeko postaz edo ogibanatzailearekin 28 euro. Aurten, Pradere okindegiari esker gure aldizkaria etxe aintzinera garaiz allegatzen da, postaz beti berandu baitzen ... natua baita.

### *Polizia postua*

Martxoaren 1etik goiti, Herriko Etxeak denbora osoko polizia postu bat sortu du. Erabakitori hartua izan da beharrak geroz eta handiagoak baitira eta ondorioz, mugagabeko lan kontratua izanen da.

### *Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa*

Larunbat huntan, martxoaren 9an eguerditan Herriko Etxeko Edantegiko mus lehiaketaren finalak izanen dira. Aurten 34 bikotek parte hartu dute txapelketan eta finalak hiru mailetan eginen dira. Lehen saria, Saloun 8 eguneko egonaldia lau pertsonentzat da, bigarrena bildotsa. Finalen ondotik, zikiro jatea antolatu da, Jose Angel musikariarekin.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDABERRIKO ARROPA
KONPLEMENTOAK, JERTSEAK, KONJUNTOAK, KAMISETAK, TXUBASKEROAK ETA OSPAKIZUN BEREZIETARAKO ARROPAK


ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
✆ 948 581807 • 948 581853

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAILAN ETA VERONIQUE
SARA • TEL 0559542519

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

ZUGARRAMURDI

# Helikopteroek lur hartzeko lekua prestatu da Martineako belategian

## Kasik ehun Hektara zuhaizti hunkituak izan dira



**Margari eta Koro**

Larrialdiko kasu zenbaitzutarako helikopteroa etorri izan izanda herrira. Bixtan dago gure eremu hauetan toki zabal eta garbi gutti ditugula halako tresna bat lurreratzeko. Horren beharra ikusi eta Herrikoetxeak helipuerto bat egitea erabaki zuen. Horretarako toki egokiena bezala Martineko belategia hautatu zen, eta otsailaren hondarren lanak finitu ondotik 500 $m^2$ hartzen dituen helipuerto elegantea daukagu.

### *Aurrematrikula*

2002-03 ikasturterako eskolan izena emateko epea ireki da: otsailaren 25etik martxoaren 15arte. 1999 urtean sortu diren haurrentzako da, eta eskolako ordutegia kontuan hartuz, irakasleek komenigarria ikusi dute gurasoei atentzio egokia eman nahian eskolarat hurbiltzea, ortziraletan goizeko 10,45-etatik 13,00tara, famili liburua eremanez.

### *Zikinkeria mendian*

Denek maite dugu mendira gaten garelarik bazterrak garbiak ikustea, bainan zoritxarrez aunitzetan ez da hala gertatzen, eta ikusi behar ez direnak hor lotsagarri agertzen zaizkigu. Hara hemen halako bat: Sabideatik Gandeseneko-kaskora doaien bide bazterretik 288 San Miguel zerbeza botoil bildu dira sasi tartetik (hutsik klaro).



AZKAIN

# Hartzak eta Pantzarren epaiketak arrakasta izan dute Ihauterietan

## Telefonako potoak ere erre ditu Harroka gainekaldeko etxeen ondoan

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Ihauteriak denbora ederrarekin iragan dira otsailaren 16an. Goizean 30 bat gazte eske abiatu ziren hartzarekin, «xingar eta arroltze» oihukatuz. Ongi errezebituak izan ziren lau edo bortz etxek janari eta edari frango prestatua baitzuten. Hartza bere lo luzetik iratzarri berria baitzen, ez zuten errexki kontrolatzen ahal eta bere oihu eta mogimendu haundiek jende ainitz harritu zituen, ilemozleak eta faturrak artetik beren kamioneta edo etxeko atea gehiago zainduko dute ondoko urtean. Eguerdian, saskia ongi betea zutela eta, denak Bil-Tokirat joan ziren bazkaltzeko.

Arratsaldean jende ainitz hurbildu zen plazarat eta gehienak mozorroturik, bertze urteetan baino gehiago. Traktur baten gainean txarrangak doinu alaiez ideki zuen bidea, noiztenka gelditu dantzariek fandango bat edo bertze emateko. Gaiteroak ere etorri ziren Donibane Lohizun eta Saratik. Ondotik Pantzar auziperatua izan zen plaza erdian. Aurten kuia bat eskuan, pilota plaza puntaraino upatu zen banderola baten emateko, «Ihauteriak kanpora, Halloween plazarat» oihukatuz. Bistan dena erretzerat kondenatua izan zen. Fermin Mihurak bi bertsu eman eta denak krakada egiterat joan ziren.



ISABELLE SUBELZU

**Bertze urteetan baino jende gehiago mozorrotu zen Ihauterietan.**

### *Arteen foruma*

Herriko etxeak arteari buruzko asteburu bat antolatzen du martxoaren 16 eta 17an. Bil-Tokin elkartuko dira Azkaingo eta inguruko herrietako artista batzu (Ziburu, Kanbo, Ezpeleta, Urruña, Uztaritze, Senpere eta Zuraide). Tindatzaileak, zizelkariak, trikota egileak, kadira apaintzaileak eta 3 dimentsioetako tindu egileak, orotarat 40 bat elkarrizketatzen ahalko dira. Sartzea dohainik izanen da, nahi duenak borondatea uzten ahal du.

### *Sagarmatha espedizioa*

Frederic Lafitte herritarra Martxoaren 16an abiatuko da Himalayarat, Everest gailurra gainditzeko asmoarekin. Ekainaren 1ean etorriko da gibelat. Interneti esker segitzen ahalko ditugu espediziokideen balentriak egunez egun. Webgune bat sortu dute: perso.wanadoo/everest2002. Helbide elektronikoa ere martxan ezarri dute: everest.2002@wanadoo.fr.

### *Esne errautsa bilketa*

«Appel Detresse» elkarteak martxoaren 16atik goiti esne errautsa bilketa antolatu du. Eskaintzak lokalan uzten ahalko dira astearte goiz eta ortzegun arratsaldeetan.






PERTSONAIA

Fred LAFITTE

***«Everest igaitea sinbolo bat da alpinista guzientzat»***

**Everesterat joatea aspalditik duzun amets bat da?**

Ez da amets berezi bat neretzat, bainan sinbolo da alpinista guzientzat, munduko gailurrik gorena da eta holako goratasunean iragaiten ahal den abentura berezi hori bizi nahi nuke.

**Zer kalitate beharko duzu kaskoraino arribatzeko?**

Jadanik mendia ongi ezagutu behar da, bere lanjerak, bere problemak... Erran gabe doa fisikoki forma haundian izan behar dela... Eta psikologikoki prest izan behar da holako gauza baten bizitzeko. Biziki zaila da, hotz egiten du, oxigeno gutti da eta unadura haundia jasan behar da. Azkenik denbora aldetik xantza ainitz behar da.

**Zer pentsatuko duzu gailurran zangoak pausatzen badituzu?**

Itzultzerakoan erantzunen zaitut.

**Handik itzultzean plazerra hartuko ote duzu Larrun igotzean ?**

Noski baietz, bi plazerrak arras desberdinak dira.



# EZKONTZAK

**Unai Berasategi Asurabarrena** eta **Beatriz Gaston Lujanbio**, Donostia eta Goizuetakoa, otsailaren 23an.



# JAIOTZAK

**Diolindo Vives Alvez**, Elizondokoa, otsailaren 6an.
**Imanol Maisterrena Larregi**, Amaiurkoa, otsailaren 16an.
**Mikel Bango Elorza**, Doneztebekoa, otsailaren 12an.
**Margaux Alexia Albistur**, Azkaingoa, otsailaren 2an.
**Roselyne Christiane Sandrine Apiou**, Azkaingoa, urtarrilaren 28an.
**Andoni Auchoberry**, Azkaingoa, otsailaren 19an.
**Eki Julieta Ange Lisan Chardinne**, Azkaingoa, urtarrilaren 25ean.
**Florian Hegoas**, Azkaingoa, urtarrilaren 28an.
**Julie Pedouan**, Azkaingoa, otsailaren 21ean.
**Maiana Mitxelena Arburua**, Zugarramurdikoa, otsailaren 12an.
**Kattalin Berasain Goia**, Berakoa, otsailaren 6an.
**Jon Arrizurieta Telletxea**, Leitzakoa, otsailaren 12an.
**Saioa Sagastibeltza Perurena**, Leitzakoa, otsailaren 13an.
**Irati Zabaleta Balantzategi**, Leitzakoa, otsailaren 13an.
**Aitor Ortiz Ariztimuño**, Leitzakoa, otsailaren 18an.
**Egoitz Baleztena Goikoetxea**, Leitzakoa, otsailaren 17an.



# HERIOTZAK

**Elena Josefina Etxenike Laurnagarai**, Iruritan, otsailaren 17an, 86 urte.
**Maria Luisa Portu Maritorena**, Erratzukoa, otsailaren 25ean, 76 urte.
**Dolores Aizpuru Otaegi**, Elizondokoa, otsailaren 25ean, 90 urte.
**Jean-Claude Félix Abel Cavalie**, Azkaingoa, urtarrilaren 26an.
**Mathilde Errandonea Sansinenena**, Azkaingoa, otsailaren 23an.
**Mª Jesus Ariztia Karrikaburu**, Urdazubikoa, otsailaren 14an, 83 urte.
**Lourdes Randez Mitxeo**, Oitzekoa, otsailaren 25ean, 35 urte.
**Lorenzo Mutuberria Petrirena**, Arantzakoa, otsailaren 17an, 87 urte.
**Anunciación Telletxea Viñas**, Lesakakoa, otsailaren 26an, 74 urte.
**Josefa Baleztena Juantorena**, Leitzakoa, otsailaren 12an, 85 urte.

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

Navarpro
Material de Protección Forestal
TUBOAK
ZIRI GIDARIAK
GAZTAIN PIKETEAK
HESIETAKO SAREAK
LORATEGI ETA ZERRAKIURA MATERIALAK
Eslava Karrika, 15
☎ 607 842 709 ☎ 610 836 534
31320 MILAGRO
(Nafarroa)



**Josefa BALEZTENA JUANTORENA**

**Leitzan hil zen 2002. urteko otsailaren 12an, 85 urte zituela.**

*Zure barre ttikiarekin joan zara amona*
*itxasoak barealdia bezala*
*isladatzen zenuen lasaitasuna*
*zuk eskeinitako maitasuna*
*izan da denentzat haundiena.*

ZURE BILOBAK ETA SEME-ALABAK

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.
TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52
ELIZONDO
Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan
✆ 900 704704
✆ 948 581959

## FUTBOLA



| BETI GAZTE A (Benjaminak) | | |
|---|---|---|
| Javier Carrion | Mikel Sanchez | Haizea Irigoien |
| Jon Migeltorena | Andoni Zubiri | Rocio Palacin |
| Unai Gurrutxaga | Ibai Gallardon | Ane Gonzalez |
| Jabier Etxebeste | Julen Astibia | Ander Olaizola |
| Josu Sanjurjo | Aitor Urbieta | Kepa Txoperena |
| Mikel Maia | Gorka Tello | **Entrenatzaile:** |
| Gorka Portu | Joar Tainta | Beñat Maia |



| BETI GAZTE B (Benjaminak) | | |
|---|---|---|
| Beñat Oronoz | Oihan Olaizola | Maddi Arriola |
| Fernando Etxegarai | Keven Leiper | Olaia Iantzi |
| Ander Ordoki | Aritz Willerdling | Alina Desesperes |
| Jon Etxebeste | Julen Taberna | Iker Gonzalez |
| Arkaitz Retegi | Ander Abuin | **Entrenatzaileak:** |
| Mikel Arriola | Amaia Zapiran | Iñaki Zudaire eta |
| Eñaut Iparragirre | Irati Otxoteko | German Deskarga. |



| BETI GAZTE A (Alebinak) | | |
|---|---|---|
| Fred Ramos | Ander Maritxalar | Mikel Elizaga |
| Steven Leiper | Migel Elizalde | Iñigo Ostiz |
| Lander Arriola | Iker Telletxea | Pedro Jose Martin |
| Mikel Flores | Fran Ramos | Maider Etxandi |
| Aritz Telletxea Etxepis | Javier Sein | Itxasne Otxoteko |



| BETI GAZTE B (Alebinak) | | |
|---|---|---|
| Fred Ramos | Aritz Telletxea Aristar | Ander Bertiz |
| Jabier Susperregi | Igor Gurrutxaga | Maite Iturria |
| Iñaki Pikabea | Victor Fernandez | Itxaso Fagoaga |
| Asier Biurrarena | Ugutz Zelaieta | **Entrenatzaileak:** |
| Joseba Irigoien | Iñaki Iruretagoiena | Imanol Urbieta eta |
| Ibai Retegi | Gaizka Juanena | Mikel Oiartzabal |

# Benjamin eta alebin mailako neska-mutikoak biltzen dira Mastegiko futbol txapelketan

### Lesakako Beti Gaztekoekin batera, Baztan eta Oriotik etortzen dira futbolariak

**Aitor AROTZENA**

1998-99 denboraldian hasitako ohiturari eutsiz, igande goizetan benjamin (8-9 urte) eta alebin (10-11) urteko neska-mutikoak biltzen dira Lesakako Mastegi zelaian jokatzen den futbol-7 txapelketan. Joan den azaroatik hasi eta martxo akabaila bitarte, igandero ez bada hamabortzean behin 150 haurrei futbolean aritzeko aukera eskaintzen zaie. Gehienak, 66 bat, Beti Gazteren izenean ari dira, baina badira Baztan aldetik datozenak ere, San Francisco Jabier ikastetxea (26) eta Baztan Ikastola (25) ordezkatuz. Hauetaz gain, Oriotik bertze



**BAZTAN IKASTOLA (Benjaminak)**

| | | |
|---|---|---|
| Xabier Iruretagoiena | Ibai Igarabide | Xuban Eugi |
| Iker Atxa | Gorka Aldako | Xabier Urrotz |
| Aimar Serrano | Beñat Gartxitorena | Iraitz Otxandorena |
| Xabier Gil | Beñat Garmendia | **Entrenatzaileak:** Iñigo |
| Iraitz Erneta | Imanol Olabe | Plaza eta Endika Eugi |



**SAN FRANCISCO JABIER (Benjaminak)**

| | | |
|---|---|---|
| Julen Garmendia | Joseba Braña | Iñigo Pacheco |
| Javier Urrutia | Ekaitz Lameriñas | Javier Rios |
| Urko Garcia | Joseba de Blas | Andoni Goñi |
| Estebe Goñi | Unai Juanikotena | Jorge Maylin |
| Julen Larregi | Iñigo Lizasoain | Angel Arrondo **(Ent.)** |



**BAZTAN IKASTOLA (Alebinak)**

| | | |
|---|---|---|
| Urki Aldako | Urtzi Gonzalez | Ioritz Mitxeltorena |
| Pablo Gaztelupe | Adur Otxandorena | Joseba Escalada |
| Mikel Aldako | Jon Quintano | **Entrenatzailea:** |
| Ander Perez | Jon Moreno | Jose Manuel |
| Sergio Escudero | Iñaki Arregi | Otxandorena |



**SAN FRANCISCO JABIER (Alebinak)**

| | | |
|---|---|---|
| Jorge Jauregi | Alejandro Arrondo | Patxi Bengotxea |
| Iban Etxart | Joseba Martinez | Tomas Garmendia |
| Imanol Arretxea | Luis Mari Iturriria | **Entrenatzailea:** |
| Jokin Garmendia | Miguel Javier Agerrea | Jose Ignacio Arretxea |
| Jose Mª Roldan | Ibai de Blas | |

30 bat etortzen dira autobusean sartuta eta Mastegi izenarekin ari dira futbolean. Adin ttikikoak badira ere, jokaldi eta gol ederrak eskaintzen dituzte. Txapelketa akautzen denean, apirila erdialdera, egun osoko jardunaldia jokatuko da, partehartzaile guziak elkarrekin ikusteko. Mastegiko txapelketara Iruñe aldeko taldeak ere gonbidatu dituzte eta jardunaldi batzuk Lesakan jokatu diruzte. Trukean, Lesakako txapelketan ari direnak hiriburura edo Erribera aldera joanen dira.



## Beñat MAIA *Beti Gazteko entrenatzailea*

# *"Baloiarekin aritzen ikastea bilatzen dugu adin hauetan"*

**Zer gisako entrenamenduak egiten dituzue 8-9 urteko neska-mutikoekin?**
Astean bitan entrenatzen dugu, astearte eta ortziraletan. Gehien bat baloiarekin aritzen dira, adin horietan ezin baituzu prestakuntza fisikorik egin. Baloiarekin jostatzen ikastea da helburua.

**Herri ezberdinetakoak dituzue taldean. Nola moldatzen dira?**
Gehienak lesakarrak dira, baina badira Etxalar, Igantzi eta Doneztebekoak ere. Ongi hartzen dute elkar. Halere ez diote errespeto sobera entrenatzaileari. Bertzalde, guraso batzuk laguntzen dute, porteriak ateratzen eta...

# AGENDA egunez egun

**KONTZERTUA**

**LEITZA**

**Martxoaren 9an** frontoian gaueko 10etatik goiti, Pulcorp, Parasma, Eraso, S.A. eta Ken7. Antolatzailea Leitzako Gazteak. Sarrerak 9€, Gaztañaga eta Torrean.

**ZINEA**

**LEITZA**

**Martxoaren 8an 22:30etan**
El hijo de la novia
**Martxoaren 10ean 19:30etan**
El hijo de la novia
**Martxoaren 15ean 22:30etan**
En construcción
**Martxoaren 17an 19:30etan**
En construcción

**NAFARROAKO BERTSO LIGA**

**BERA**

**Martxoaren 9an** larunbata, Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Ekintza Landa eta Nerea Bruño. 21:30etan Jamotenean.

**EMAKUMEEN ASTEA**

**BERA**

**Martxoaren 7tik 10era**
Berako emakumeek egindako lanen erakusketa kultur etxean. 7an hitzaldia. 8an afaria trikitilariekin. 10ean Antzerkia "El té de las 5" Emaitza antzerki tailerra. 18:00etan

**EMAKUMEAREN EGUNA**

**DONEZTEBE**

**Martxoak 7.** Haizeako hezitzailearen hitzaldia, mankomunitatearen egoitzan 7etan.
**Martxoak 8.** Diapositiba lehiaketaren sari banaketa
**Martxoak 16.** Antzerki monologoa, "Yo soy esa" Liburutegian

**ELIZONDO**

**Martxoak 10.** Emakumeen bazkaria eta dantzaldia Santxotena Jatetxean. Joxe Angel akordeolariarekin. 30 euro.

## TELEBISTAKO TXOKOA





HERRIZ HERRI, JOKOA SOLAS, INFORMAZIOA

# Ohiko programazioara itzuli da Ttipi-Ttapa telebista

Herrietako inauteriak pasatuta, Ttipi-Ttapa telebista ere bere ohiko programazioa emititzera itzuli da. Egunero gaueko 9etan Bortziriak, Malerreka eta Bertizaranako berriak bilduko dituen informatiboa ikusteko aukera izanen duzue. Astirik ez baduzu, lasai, biharamunean 11:00etan, 13:00ean eta 15:30etan errepikapena izanen baituzu. Kirol saiorik nagusiena astelehenean emititzen da, Jokoa Solas. Aitor Arotzenak eskualdean gertatutako emaitza guziak emanen dizkigu. Asteazkenetan informatiboaren ondotik ez galdu Herriz Herri saioa. Herrietan grabatzen diren elkarrizketa eta dokumentalek, zuen herrietako alderdi aunitz erakutsiko dizkizuete. Hori guzia gure korresponsalen eskutik.

**ORDUTEGIA**

*Astelehenetik ortziralera:*
**21:00etan** Emisioa
**11:00etan** Errepikapena
**13:00etan** Errepikapena
**15:30etan** Errepikapena
*Astelehenetan:*
Informatiboraren ondotik
**Jokoa Solas**
*Asteartetan*
Informatiboraren ondotik
**Labumetraia**
*Asteazkenetan:*
Informatiboaren ondotik
**Herriz Herri**

## DISKAK




«Georges Brassensen kantari»

**Anje Duhalde**

ELKARLANEAN

1981eko urriaren 29an, frantziar kantu modernoaren inguruan inoiz sortu den fenomenorik eraginkorrena zendu zen. George Brassens poeta, idazle, konpositore eta kantari iraultzailea izan zen. Anje Duhaldek (Arrangoitze-Lapurdi 1950) txiki-txikitatik jaso du George Brassens-en eragina eta honen obraren jarraitzaile porrokatua izan da betidanik. Bere heriotzaren 20. urteurrenean aurkeztu zuen disko hau, haren oroimenean bururiko lan fin eta berezia da. Alde batetik, musikalki atsegin eta erakargarria da eta bestetik, Anje Duhalde-k Brassens-en ideologia eta pentsaera euskaraz aurkezten dituelarik, mezu iraultzailea, euskaldun publikoaren artean barreiatzen laguntzen du. Diskoa, 2000ko otsailean, ilargi xuri gau batez, Baionako Luna Negra taberan grabatu zen.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Otsailaren 15etik 22rako prezioak)

**ZERRIKIA**



**Zerrikumea**
(19 kilo): 46,00 €

**Zerri gizena**
(95-100): 1,00 €

**Zerramak:**
0,45 € kiloa, bizirik.

**BEHIKIA**



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,37
**1.koa** 3,25
**2.koa** 3,13
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 3,43
**1.koa** 3,31
**2.koa** 3,19

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Mestizoak:** urruxak 234,29 € eta idixkoak 222,37 €

**Nabarrak:** urruxak 222,36 € eta idixkoak 160,29 €

**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,01/3,07
Zaldi-behorrak: 1,92/1,98

**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 4,60/4,90
8-10 kilokoak: 4,15/4,45

## JAKIN BEHARREKOAK



# Sutea etxean gertatzen denean

Gasa, elektrizitatea, haurrak eta tabakoa, izaten ohi dira etxetan gertatzen diren suteak eragiten dituzten faktoreak. Zuen esku dago instalazioak modu egokian edukitzea, eta erabilera zuzena egitea.

•Oroitu urtean behin bederen tximiniak garbitu behar direla. Neguan ongi ibilitzeko garbi egon behar dute.

• Etxean 5 kilo edo gehiagoko extintorea eduki. Urtean behin su baten aurka hustu eta berriro bete.

• Erre usaina nabaritzen baduzu eta ez baduzu non den ikusten, abisatu azpiko pisuetakoei. Usaimen on batek sutea galerazi dezake.

*Erre usaina nabaritzen baduzu baina ez duzu ikusten non den, beheitiko pisukoei abisatu. Usaimen on batek sutea galerazi dezake.*

• Etxean sutea gertatzen bada eta baliabide faltagatik ezin baduzu itzali, itxi ateak eta leihoak eta abisua eman auzokideei laguntza eskatuz.

• Auzokideek gasa eta elektrizitatea kentzen lagunduko dizute eta bitartean gainontzekoei abisua emanen diete.

• Bonberoei deitu eta bidali norbait sarrerako atera informazioa emateko.

• Goiko pisukoek eskegitako arropa eta kortinak kentzea gomendatzen da.

• Ateratzeko momentuan eskailera kez betea badago, itxi atea, bonberoei deitu etazure burua ebakuatzen saiatu.

• **112** ra deitu urgentzietarako.

**Jesus Agirre**
**Berako Suhiltzaile Boluntarioak**

## LIBURUAK




*Holaxe dira gauzak!*

**Garbiñe Salaberria**

*Desclée de Brower*

Xabier Mendiguren Bereziartuak euskaratu ditu "Holaxe dira gauzak!" liburuan bildurik agertzen diren Garbiñe Salaberriaren bortz narrazioak: "Horixe bezain erraza", "Maitasuna kartara", "Hurbiltze ari diren orduak", "Bere begiradatik salbo" eta "Jadanik gau itsua". Guztiak hamabost urte inguruko neska eta mutilak dauzkate protagonista, beren gogo sutsu, ezinegon eta beldurrekin. Eta egoera berezi horrek, ordura arte sekula egin izan ez dituztenak egitera bultzatuko ditu. Batek, eskuko zati bat galduko du gogoz, auzoko jaunxkilak gaina har ez diezaion. Bestea, elkarekin irtetera lotu nahi duen mutilaren amarruan eroriko da, oharkabean. Ohean pixak alde egiten dion neska gaixoaren kasua gogorra da gero. Eta maitasunaren lilurak edota hormonen gorakadak eraginda egin daitezkeenak eginda sufritzen dena. Liburua Desclée de Brower argitaletxeak editatu du eta 5,41 euro balio ditu.

## AGENDA egunez egun

### EMAKUMEAREN EGUNA
**LEITZA**
**Martxoak 7.** Masaje saioa 17:00 etan Aurreran.
Martxoak 8. Afaria Torrean, ondotik bertso trama.
Martxoak 11. Hitzaldia "emakumeen plazerra" 17:00 Aurreran.

### AFARIA
**LESAKA**
**Martxoak 19.** Aita eta aitatxien eguna. S.Fermin Jubilatu Elkartea. 15,03€

### GAZTE JOKOAK
**BERA**
**Martxoaren 9, 16 eta 23an.** Muralak, pintxoak, proba konbinatuak, parodiak eta afari mundiala. Gazte asanbladaren eskutik.

### ERAKUSKETA
**BERA**
**Martxoaren 12tik 16ra.** "La Caixako planetario bidaiaria" Kultur Etxean 17:00etatik 19:00etara

### TOPAKETAK
**DONEZTEBE**
**Martxoaren 23an.** Landa Eremuko Emakumeen 5. topaketak. Ezpelura elkarteak antolatua.

### SAGARDOTEGIAK
**LEITZA**
**Martxoaren 16an** irteera Astigarragara. Izena emateko epea martxoaren 9a. Gaztañagan. 8 euro

### MANIFESTAZIOA
**LEITZA**
**Martxoaren 23an**
Maxurrenea kultur etxean bihurtzeko. Sinadura bilketa ere egiten ari da.

### ARTEEN FORUM-A
**AZKAIN**
**Martxoaren 16 eta 17an.** Bil-Tokin. Sartzea dohainik izanen da eta nahi duenak borondatea uzten ahalko du.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 11 88

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**


**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak




## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**BEINTZA-LABAIEN. Baserria lur eremuarekin salgai.** ☎ 948 450 039

**BERA. Pisua salgai** Ibaialde, 6-5.D. 80m². Prezio negoziagarria. ☎ 948 631 468

**BERA. Pisua salgai** Legia, 53-3. pisuan ☎ 696 753 366.


**BERA.** Etxea, lur eremuarekin salgai. Herrian bertan. Prezio interesgarria.
✆ 607 978656

**SUNBILLA.** Eraikitzen ari den etxea, lur eremuarekin salgai.
✆ 948 451841
✆ 607 978656

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

**ADOS**
DONEZTEBE
Pisu berriak salgai.
Azken bi etxeak.
Bigarren eskuko bi etxe salgai.
5.500 m²ko terreno eraikigarria,
2 txalet egiteko aukera.
BERA
SALGAI: Pisu batzuk,
estatua den bajera,
2 pisu Eztegara Pasealekuan
✆ 607 978 656


**BERA. Pisua salgai Agerran.** Eguzkitsua, igogailua, soto eta kalefakzioarekin. Sukalde ekipatua, bajerarekin edo gabe. ☎ 948 630 885 • 625 705 556.

**BERA. Pisua salgai** Eztegaran. 3. solairua igogailuarekin. Sabaiarekin barnetik lotua. Eguzkitsua. 125m². Prezio onean. ☎ 948 630 251 • 679 774 971

**BERA. Pisua** Eztegara pasealekuan eta **bajera** Legian **salgai.** ☎ 948 631 065

## ETXEBIZITZAK

### 104 Errentan hartu

**BERA. Familia bakarrarentzako etxea edo pisua** errentan hartuko nuke, hilabete batez, Uztailean. ☎ 948 256 359

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 Saldu

**LEITZA.** Patxi Arrazolan **bajera salgai.** ☎ 948 510 504

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan eman

**LEGASA.** 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

**BERA. Bajera** errentan emateko. Alkaiagako tunelaren ondoan. ☎ 678 445 490

## GARAJEAK/LOKALAK

### 110 Errentan hartu

**BERAn** gutienez 50m² dituen **bajera** errentan hartuko nuke. ☎ 0033 608 608 533

## LURRAK/ORUBEAK

### 113 Erosi

**BERAn hektarea bateko lur eremua** eros genezake. ☎ 699 526 512

## LANA

### 301 Eskariak

Kotxea duen **zerbitzaria eskaintzen** da. ☎ 948 625 152

## LANA

### 302 Eskaintzak

**IRUÑEA. Neska euskalduna interna,** behar da lanean


ARANTZA ZURGINDEGIA
José Miguel Errandonea
Klase guztietako zurgin lanak
Olaldea © 948-634068 • ARANTZA

MANU
AKUITXILATZEAK
BARNIZATZEAK
☎ 948 630 256
☎ 656 411 075


aritzeko. ☎ 687 726 514

**IRUÑEA.** 25 urtetik gorako **neska behar da** gozotegi bateko obradorean lan egiteko. ☎ 948 220 618

**Emakumea behar da,** etxe-


TILESA

Ikastaro trinkoak, udakoak, ikasturte osokoak, etabar...
Nafarroa: 948 637 397
Gipuzkoa: 943 211 297
Sakelakoa: 656 728 119


ko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 948 635 244 (arratseko 8etatik aitzin)

**BERA.** Jatetxeko **sukaldari eta zerbitzaria** behar dira epe luzerako. ☎ 619 829 289

Zubietako udalak, errotarako **bi erakusle** behar ditu. Aste Santuan eta udako 3 hilabeteetan. ☎ 619 829 289


PSIKOANALISTA
☎ 948 580 975
Jaime Urrutia 42-2.D
ELIZONDO


## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**BMW 535 salgai.** NA-V. ☎ 669 368 992

**Renault 21 Nevada** familiarra, NA-AD eta **Citröen CX,** NA-N salgai. ☎ 948 450 338

**Renault 19 16V,** 140 zaldi. SS-AN. Urdin kolorekoa. ☎ 658 701 815

**Volkswagen Golf VRG** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 619 762 096

Ongi dagoen **Renault Safrane** bat salgai. ☎ 948 580 491

**Citröen Xsara 200 HDi salgai.** 43.000 km. NA-BC. Egoera onean. ☎ 609 172 489

**Opel Calibra 2.0** 16V gorria salgai. Egoera onean. 3.606€ (600.000 pta) ☎ 687 726 514

**Derby Senda SR** motoa salgai. ☎ 646 161 282

## ANIMALIAK

### 602 Saldu/Erosi

**Collie zakurkumeak** salgai. ☎ 948 637 461

**Oilagor ehiziko zakurkumeak** salgai. Ama spaniel breton, aita setter. ☎ 948 635 079

**GOIZUETA. 6 betizu salgai.** ☎ 948 514 186 (19:00etatik 21:00etara)

**Spaniel Breton** arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎ 948 630 967

**ANIZ. 30 ardien deretxoak** salgai. 948 585 068

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Pinu insignis landareak** salgai. ☎ 943 557 230

**OPOKA**
*Jatetxe - Teteria*
·Bazkari eta afariak
·Txokolatea, teak eta jateko mokaduak
·Espezialitate begetarianoak enkarguz
*Giro goxoa eta familiartekoa*
*Asteartetik igandera*
☎ 948 456 165 • 649 964 144, Santa Katalina 25- 28 Legasa



**BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA**
Sukaldean erabilitako olioen bilketa egunak
**2002ko martxoaren 7an**
Lesaka ............... 9etatik 12etara
Igantzi .................... 13:00etan
Arantza ................ 14:00ak arte
☎ 948 635 254 - Etxalar



**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Land Rover Defender, Astra DTI, Galloper 5 ate, Astra 1600 club, Megane TDI, C15, Terrano II 125 cv
SUZIAK ETA VITARAK AUKERAN



**BOAN TAILERRA**
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA



**GANIX Tailerrak**
Iturlandeta, 9 • ✆ 948 630689 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



**BAZTAN MOTOR**
✆ 948 452 119 • IRURITA
Aukera handia bigarren eskuko kotxetan.




TRIKIDANTZ
✔ Herriko bestak
✔ Inauteriak
✔ Ezkontzak
✔ Kinto Bestak
✆ 948 451 507 (Ainara)
✆ 646 298 568 (Ainara)
✆ 659 3769 917 (Leire)



**manelsa** s.l.
elektrizitate industriala
**Instalazio eta muntaia elektrikoak**
**Mantenimendua**
**Automatismoak**
**Iluminazioa**
Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
**31700 ELIZONDO**
Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
**31195 BERRIOZAR (Nafarroa)**


Eraikuntza negozioa uzteagatik: hormigonera, zabaltzen den erregela, bibratzailea, ormigoi ebakitzailea, "Hitachi" eta "Mango" demoledorak, 50mmko, "Hitachi" taladroa, "Topeon" laser nibel osoa, moladora, 350 eta 100 kgko grua berriak salgai. ☎ 948 610 907

**Seilu bilduma salgai.** Bortz koaderno eta osagarriak. 1973tik hasitako seiluak. ☎ 948 630 167 mezua utzi

**Iltxaur plantak salgai.** 200 inguru. ☎ 948 450 974

**DENETARIK**

**703 Bertzelakoak**

**Web orriak,** CD azalak, kartelak, tarjetak, logotipoak egiten ditut. ☎ 948 627 635 • 626 746 898 (Patti)



**LARRALDEA SAGARDOTEGIA**
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
✆ 948 452121



**KULTURKARI**
**Inprenta lanak egiten ditugu**
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
Eskatu aurrekontua loturarik gabe
✆ 948 63 11 88



616 513 491
Pitti
ESKABAZIOAK
C/Amastia,1
31740 DONEZTEBE (NAFARROA)



TOLDOS BAZTAN
**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...
☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.-Baldrun, 8 • LESAKA • BERA
**PERTSIANAK**
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK


4 hilabete...
ikastola
8 urte...
Izena emateko epea
martxoaren 15a bitartean.
Altzate,8 BERA 948.630172
bera@ikastola.net
LABIAGA
ikastola
BERA
edota 16 urte


MUEBLES AMETS
Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443
Kolore eta neurritan aukera haundia

# BORTZIRIETAN

## IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

- ✓ Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
- ✓ Dohainik
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin
- ✓ Integratzailea
- ✓ Teknologi berriez baliatuta
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
- ✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako institutuan
- ✓ Lesaka eta Beran 2 urteko umeentzako matrikula irekia

## TXIKIAK HEZITUZ HAUNDITU

**Izen ematea: otsailaren 25etik martxoaren 15era**